

uk

45. zenbakia / 2003 uztailek 9



ARGIAren MAHAI JOLASA

Zer egin lagunekin **dibertitzeko?** Badakit!

Zer egin mundua **deskubritzeko?** Badakit!

Zer egin etxekoei **ziria sartzeko?** Badakit!

Zer egin **ez aspertzeko?** Badakit!

Galdera guztien erantzuna... Badakit!

MAHAI badakit

JOLASA
1.800 galdera

2-36
jokalari

Adin guztietarako egokia
Bi zailtasun maila

SALMENTA PREZIOA

30€



Opari honekin asmatuko duzu
BADAKIT!



ESKAERAK: 943 37 15 45 (Argia)
denda@argia.com
Ohiko salmenta lekuetan



«Denok heldu gura dugu zahartzarora, baina inork ez du zahar izan gura» Martin Held

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Enarak. Antonio López.
6. PLAZA. Aste Nagusiak 25 urte, Javier Iglesias. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, A. M.
7. LEHEN ETA ORAIN. Leioako tren geltoki zaharra.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Gorpuzti eguna. Asier Mentsaka.
26. BERBETAN. Xabier Amuriza. Unai Brea.
28. ERREPORTAJEA. Saharaiak gurean.
30. ERREPORTAJEA. Skaterrak San Juan egunean.

KULTURA ETA AISIA


34. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Koldo Serra.
35. MUSIKA. *Patada en la papada* taldea. Kontzertuak eta diskoak.
36. IRAKURGAIK. Esti Ezkeraren zutabea eta Elias Amezaga.
37. ELKARRIZKETA. Inigito Txapelpunk.
38. NATURA. Gure espezie bat, igela. Udako suteak.
39. MUGIDU. Parisera txangoa. Kirola, espeleologia.
40. OSASUNA. Lotsa. Eguzkia eta azala.
41. JANTZI. Eguzkirako betaurrekoak.
42. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.
43. KOMUNIKAZIOA. Arantza Gutiérrez eta Bertatik Bertara saioa.

EUSKARAZ

44. URIBERTSOAN BARRENA. Andoni Iriondo gogoan. Algotako Bertsolari Eskola.
48. AKABUKO PUNTE. Kostako kontuak. Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoen "Gure berbakere" zutabea.
50. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa...

AMAITZEKO

52. JAN ETA EDAN. Gaizka Escudoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Itsaso Aranari (estatuko sumillerik onena 2003an) elkarrizketa.
54. HOROSKOPOA.
55. KOMIKIA. Dogan Gozel.
56. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
57. FLASH BACK. Leioztarrak Begoñara erromes, 1957.
58. AITORMENAK. Ixar Oreja.



26 Xabier Amuriza

Berbetan


Bertsolari, irakasle, idazle, itzultzaile... Euskara ahoz nahiz idatziz, plazan nahiz paperean, maisutasunez darabil. Beragaz egon gara.



53 Itsaso Arana



44 Andoni Iriondo gogoan



37 Txapelpunk



24 Gorpuzti Eguna



58 Ixar Oreja



AZALA: Asier Mentsaka



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIGIDEA: Arnetzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Eunate Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Bitor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Iratxe Agirre, Edure Ugarte, Xabier Buenetxea, Patxi Díaz, Gonzalo Ibarregaray, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez, Mitxelko Uranga
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazinkir dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkarteen dirulaguntza jasotzen du



Topagunea



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Elkartasuna oporretan

UKren zenbaki honetan Uribe Kostara uda pasatzera etorten diren Saharako umeen gaineko erreportajea sartu dugu. Bertan esaten denez, gero eta zailago egiten zaie horretan diharduten elkarte eta instituzioei umeak hartuko dituzten familiak aurkitzea. Erosoak ei gara, eroso bizi gara eta ez dugu gura ezerk gure erosotasuna zapuztea. Eta holan, kosta egiten zaigu Saharako infernu kixkalgarritik bi hilabetetxorako ihesi datozen umeen ardura hartzea ere. Ez dira garai egokiak elkartasunerako, antza. Ez da denbora luzea Getxoko odol-emaleen gainean berba egin genuela; horretan ere, gero eta gutxiago dira aldamenekoari laguntzeko erabakia hartzen dutenak. Adibide gehiago eman litezke: supermerkatu oparoaren alboan dagoen kaleko eskalea garden bihurtu da gure begietarako, gaixotasun eta ezbeharrek ez gaituzte gehiegi kezkatzen gure inguruan egokitu ezean, eta telebistaz ikusten ditugun gerrak primeran daude gugandik urrun dauden bitartean.

Igaro dira guztiok guztion beharra geneukan garaia. Baserri giroan batez ere, ohikoa zen -eta oraindik bada- beharra zegoenean bizilagunari laguntzea, inoiz norberak eduki zezakeen-eta laguntza behar hori. Oraingo hiriko bizimoduan, baina, etxeko atletik kanpora gertatzen dena ez da gure ardura. Horregatik hartzen ditugu arrarotzat Irakera brigadista doazenak, edo Saharako umeak hartzen dituztenak. Horiek dira gure gizarteko heroi txikiak. 4

UKko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bialtzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxe: 94 491 58 31

goierritarrak



Goizero >>>>> **berria**



GETXO. 2003KO EKAINA

Txipiroien sasoia / Badaroz txipiroiak gure uretara, eta badoaz batelak haien bila, irudian ikus daitekeenez. Urteroko ohitura da molusko zefilopodo dekapodo estimatu hau harrapatzera joatea sasoi honetan, baina erne! Aurten, berez prestijioduna den tinta beltza inoiz baino beltzagoa izan daiteke, eta inoiz baino *prestige*-dunagoa. Zelangura bere, horrek ez du esan gura txipiroien arrantzan jardutea jostagarria ez denik, Santurtziko portuko garabien begirada isilaren pean dabiltzan batel hautentzat seguruenik izango den bezala. / Argazkia: Asier Mentxaka

Leihatila

> Josu Esnaola

Eskubideak

Zalantzasz beteriko pertsona naizela diote. Ez dakit, bada, horrela izango ote den, baina oraingo honetan ere, aitortu beharra daukat, zalantza txikitxo bat badarabilt bueltaka buruan. Ezkontzeagatik lanean baimena ematen dute, 15-20 egunekoa, oker ez banabil. Sasoi batean ezkonduer baino ez zitzairen aitortzen “eskubide” hori, eskubide edo fabore, ez dakit oso ondo zein den berbarik egokiena. Gaur egun izatezko bikoteei ere aitortzen zaie “eskubide” hori, nahikoa ei da izatezko bikoteen zerrendan izena ematea edo bizikidetzat egiaztatzea.

Lorpen handia inolako zalantza barik, baina hain naturaltzat jotzen den ekintzak, zergatik behar du halako sari berezia? Zer pentsatzen dute, nola sentitzen dira horren aurrean bikotekidea aurkitzerik lortu ez dutenak, edota bakarrik bizitzeko aukera egin dutenak? Zergatik merezi du saria batek eta besteak ez?

Baina, jakina, berdintasunaren gainetik, legeak betetzeko dira eta legeak hori badio, hala bedi. Beraz, beste urte betez zain egon beharko dugu Alardean norberak nahi duen moduan parte hartzearen aldekoak garenok, eskubide edo fabore hori batzuei baino ez zaie aitortuko eta.

Eta nik, zalantzasz beteriko honek, gauza bat daukat argi: zerbait izatekotan, kantineira izan nahi dut. 4

Iritzia

Jai sasoiari gaude, eta jai ereduai buruzko gogoeta argitaratzea egoki iruditu zaigu. Hori dela eta, Javier Iglesias *Txomin Barullo* konpartsak kideak inguruko jai enblematikoenak diren Bilboko Aste Nagusiari buruzko hausnarketa hau bialdu digu.

Bilboko Aste Nagusia
jai eredu herrikoia



«Bilboko Aste Nagusiaren gakoa jaiaren izaera parte hartzailea da»

1978an gauza berri eta harrigarria sortu zen Bilbon: Aste Nagusia. Udaletxeak Bilbon Aste Nagusi bat ospatu nahi zuen, eta Txomin Barullo taldeak irabazi zuen ideia lehiaketa baten ostean, gaur egun arte dirauen jai eredua sortu zen. Eredu horren gakoa jaiaren izaera partehartzailea da; bertan, konpartsek (era guztietako elkarteak, auzoetako taldeak,...) ekintza mordoa antolatu eta abiarazten dute Areatzako jai-eremuan, bai egunekoak (Lehiaketa Gastronomikoa, Aerobithoia, Herri Krossa, ur-jokoak Ibaizabalen,...), eta bai gauekoak ere: txapelketak, antzerki emanaldiak, kontzertuak eta abarrak konpartsa bakoitzaren txosnan. Bilboko jendeak (gaur egungo 28 konpartsetan dabilena) bertokoen eta gero eta ugariago diren bisitarien gozamenerako makina bat ekitaldi eskaintzen du; herritarrei eta bisitariei parte hartzeko aukera eskaintzen dien jai eredua da beraz. Hori dena, gaueko giro aparta kontuan hartu barik, jai-eremua betetzen duten txosna mordoaren erdian aurkitzen du bertara hurbiltzen denak, gozamen, lizunkeria eta eromenez gainezkako giroan. Datu esanguratsu bat: 2001 urtean, Bilboko Konpartsaek urte osoan zehar konpartsa guztiek erabilitako baliabideen kalkulua egin zuen, Aste Nagusian, Inauterietan, Santotomasetan eta abar antolatutako ekitaldietan eta txosnetarako, kontzertuetarako eta bestelako ekitaldietarako behar den azpegitura barne; eta hara non ikusi genuen konpartsak 1.022.000 euroko ekarpena (lehengo pezetan 170 milioi, gutxi gorabehera) egin genuela, Bilboko biztanleek eta bisitariek gero eta jai hobeez eta parte hartzaileagoz gozatu ahal izan dezaten.

Aurten 25 urte beteko dituen gure konpartsak, Txomin Barullok, oraingo hau Bilboko jaietarako eredu ezin egokiagoa dela uste dugu, eta horregatik, Bilbo herriak eta Bilboko herriarentzat (eta Bilboko gainerako auzoetako –alegia, mundu osoko– bisitarientzat) sortu ziren Bilboko jaiak bultzatzen jarraituko dugu. 4

Javier Iglesias (*Txomin Barullo* konpartsak kidea)



Iraganez doa denbora* beti / LEIOAKO TREN GELTOKIA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > Pantera barik puma zen Lemoizko piztia





Arrigunaga hondartza “Bidezabaleko hondartza” berbataiatu dute batzuek

begizorrotz > toponimia berria

Bide honetatik jarraituz gero, Amagoia Aurrekoetxeak eta Sofia Susok iaz egindako Getxoko toponomiaren gaineko azterketa zaharkituta geratuko da laster. Herriaren irudimenak ez du-eta atsedenic hartzen! UKko erredakziora ailegatu diren haizeek Getxoko toponimia etengabeko bilakaeran dabilela adierazten digute. Balio bezate, horren erakusle, adibide bi hauek:

Ohikoa bihurtzen ari da, giro jakinetan batez ere (gazteekin eta skaterrekin lotura leukaketenak), Areetari Lasa esatea. “Lasara goaz”, “Lasako skate parkea” (erdaraz noski)... Tradizio euskaldun jatorrean hain errotuta dagoen toponimo horren erabileraz geure buruari itaundu diogunean, zer aurkitu dugu baina: Lasa, Las Arenas-en laburdura besterik ez da.

Bestetik, Metroko 2. linea irekitzeak Ibaizabalen ertz bien arteko harremanak estutu ditu, eta orain, Ezkerraldeko jende ugari etorten ei da hemengo hondartzetara. Lekuok izendatzeko garaian, gainera, Metroz etorri eta, jakina, Metroaren izendegia bera baliatzen dute; hala jakin dugu, esaterako, Arrigunaga hondartza “Bidezabaleko hondartza” berbataiatu dutela batzuek. 100 urte barru edukiko duen izen “jatorra” izango ete da? ^m



Gaur egun ez dagoen, Algortako Caza taberna

datua > gure atsedene egunak



Askotan, jai egun gutxi, eta oro har, lanetik aparteko denbora gutxi daukagula iruditzen zaigu, baina Historiari errepasoa egiten badiogu konturatuko gara gaurko gizakiak pribilejiodunak garela zentzu horretan. Zapatu eta domeketan lan egin behar ez dugula kontuan hartuta (ez da guztiz egia, lanbide askotan behar egiten delako egun horietan), ohikoa den hilabeteko oporraldia gaineratuta, eta egutegiak oparitzen dizkigun bestelako jaiegunak ere zenbatuta (zubi eta “akueduktoak” gorabehera), urteko 365 egunetatik 140 ingurutan lanik ez daukagula ateratzen dugu. Antzinako egipziarrek, esaterako, urtean 50 jaiegun zeuzkaten, greziarren antzera. Erromatarrek eskuzabalagoak ziren, eta urteko egunen heren baten (120 inguru, beraz) ez zuten lanaren zama astunik jasan behar. Dena dela, opor kontzeptua (ordaindutako oporrak, jakina) zeharo modernoa da, ehun urte pasatxo besterik ez dauka eta. ^m

bazen > antzinako Getxoko aisilekuak

Badakigu, duela mende eta erdi, erromeria egunak eta berbena gauak zirela ondo pasatzeko aukera nagusiak gure inguruan (San Nikolas, Santa Ana, San Roke...); baina bazegoen bestelako egunetarako aisilekurik Getxon? Udalak, 1868ko urtarrilaren 31n Jaurreriko estatistika-idazkaritzara bidalitako inprimakiaren arabera, 11 taberna zeuden herrian. Horietara, 162 pertsona hurbiltzen ziren guztira, astero. Hori bai, denak gizonak eta adinez nagusiak. Batez ere, ardoa, pattarra eta sagardoa edaten zuten bertan. Joko eta apustu tokiak ziren tabernak, baina hauek erabat kontrolatu eta zigortu ere egiten zituzten. Bestalde, Algortan, 1862 eta 1864 urteetan, billar areto bi zeuden, bertara bai herriko eta bai kanpoko jendea hurbiltzen zen “*para sus diversiones y juegos lícitos*” (inprimakiaren arabera). Horrez gain, bolatoki bi ere bazeuden; horietako bat Alango kalean. ^m

gauzak > komun kimikoa

Jai giroa, tabernak leporaino beteta, puxika edo sabela hustu gura, eta komun publikoak batek daki non dauden. Zer egin? Ba kalean paratzen dituzten komun kimikoak erabili, baina alde zuretik jende-ilararik egon ez dadin erregutu. Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Kantabria, Burgos eta Errioxan jaiak diren lekuetan, komun kimikoak ipintzen ditu “Arlan” enpresak. Asua-Erandioko enpresa hori lehenetarikoa izan zen tramankulu mugikor horiek erabiltzen: 1985ean paratu zuen lehena. Polietilenoz eginda daude eta funtzionamendua oso erraza dute: komunak ur garbia eta zuzentze-isurkaria dituen tanga bat dauka, eta erabiltzen den heinean tanga betetzen doa. Han utzitako “opariak” 25.000 litroko edukiera duen kamioi batera botatzen dira, eta hortik zuzenean, Sestaoko Galindoko gordetegira. ^m



Komun kimiko batek 250 litro har ditzake

kale izendegia > Gabriel Aresti



Euskal poesia modernoaren eta antzerkiaren bultzatzaile eta berritzaile nabarmenak Lamiako inguruan dauka kale bat. Gabriel Aresti Segurola Bilbon jaio eta hil zen, 1933an eta 1975ean, hurrenez hurren. Euskaldun berria zen eta ogibidez enpresa-kontularia. Idazle lanetan genero bat baino gehiago landu zuen; poesian, adibidez, 1964an kaleratu zuen *Harri eta Herri* poesia sozialeko obra ospetsua aipatu behar da nahitaez. Antzerkirako, *Mugaldeko herrian* *eginiko tobera* idatzi zuen, baita *Mundu munduan* nobela ere. Itzulpengintzan ere prestatu zituen zenbait lan. 1968az geroztik euskal kantari askok, “Ez dok amairu” eta “Oskorri” taldeak tartean, Gabriel Arestiren olerki askori jarri diote musika. ^m

Irudian, Gabriel Aresti idazle handia



BEREHALAKO

MEZULARITZA ETA GARRAIOAK

% 94 430 73 19

Faxa: 94 430 90 18

Elizondo, 1 (Villamonte) • 48991 GETXO

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO





350_{m²}

KIROLERAKO

GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO

KIROL

DENDA

TORRENE 4

ALGORTAKO AZOKA

48990 ALGORTA

TF. 94 491 18 82

Zenbatean dago horman txiz egitea?

Gehiago edo gutxiago, **guztio**k egin izan dugu kaleko garbitasunaren eta gizalegearen kontrako **“pekaturik”**. Getxok ondo araututa ditu horiek, eta bakoitzari ere bere **zigorra** dagokio. Dena dela, ez ei gara lar saskeldoak.

Duela pare bat hilabete komunikabide batzuetan argitaratu zenez, Bizkaiko hainbat udaletzek kalean txiz egin edo autoaren hautsontzia kalean husteko ohituraren kontrako zigorrak gogortu dituzte (batzuk aipatzearren). Getxo ez da Durangoren parera ailegatu (han isuna dago kalean txistua botatzeagatik), baina badauzka bere debekuak eta, jakina, horiei dagozkien zigorrak.

Badakigu, jakin, ez dela egin behar, baina hala ere, honengatik edo bestearengatik, egin egiten dugu lantzean behin (edo sarritan; eta batzuek, sarriegi). Getxoko Udaltzaingoarengana jo dugu, berton zein jokabide debekatuta dauden jakiteko, eta bide batez, getxoitarrek debekuok aintzat hartzen dituzten ala ez galdetzeko.

Alberto López Udaltzaingoko Ope-razio buruak esan digunari kasu eginda, Getxoko egoera ez da beste herri batzuetakoa bezain tamalgarria. Beharbada, gau



Getxon asko dira euren txakurren kaka batzen ez dutenak

giroaren azken urteotako beheraldi nabarmenak zerikusia dauka horretan. “Kalean txiz egitea ez da batere arrunta hemen”, dio Lópezek, “askok bestela uste badute ere”. Antza, gutxien betetzen diren arauak anima-

txoko ordenantzek. Lópezek esan digunez, “arau horrekiko arazo gehienak merkatariakaz edukiten ditugu”. Udaltzainak adierazi duenez, dendari askok hautsi egiten dute garai batean Udaletxeagaz adostutako jardunbidea. m



«Animalien gorotzei dagozkien arauak betetzen dira gutxien»

lien gorotzei eta zaborra ateratzeari dagozkienak dira, kakarena batez ere. Eta hori, ez dela aspaldi txakur gorotzen gaineko legeak gogortu zirena.

Zaborra lekuz kanpo uztea ere zigortzeko moduko jokabidetzat daukate Ge-

ZELAKO “DELITUAK”, HALAKO ISUNAK

- Kalean txiz egin, zaborra orduz kanpo atera edo lekuz kanpo utzi, autoak garbitu, alfonbrak-eta ordutegitik kanpo astindu (23:00etatik 9:00etara egin daiteke), eta autoen hautsontziak hustu: 30,05-300,51 euro bitartean.
- Animalien gorotzak kalean utzi: 90,15 euro gehienez.
- Kartelak ipini: 60,10-126,21 euro.
- Pintadak egin: 150,25-901,52 euro.

Bildumazaleen paradisia

Eskuinaldeko **filatelia-denda bakarra** Algortan



Juan Carlos Robledo, Telletxe kalean daukan dendaren erakusleihoaren aurrean

“Nire zaletasuna lanbide bihurtu dut eta horretatik bizi naiz”, diosku Juan Carlos Robledo Portugaleteko getxoitarrek “Filatelia Numismática Algorta” izeneko dendaren gainean galdetu diogunean. Ontzidelineatzaile lanari utzi eta 1980an zabaldu zuen gaur egun Eskuinalde osoan filatelia-denda bakarra dena. “Nire zigiluarekin eta Getxoko posta-txartelen bildumekin hasi zen denda”.

Zigiluak eta txanponak (batez ere), antzinako posta-txartelak eta liburuak, eta billeteak eta mineralak eros ditzakete bildumazaleek bertara hurbiltzen badira; “Ohiko bezeroa bere bilduma osatu gura duen 30 eta 50 urte bitarteko jendea da”.

Bitxikerien artean, erromatarren garaiko txanponak eta akatsak dauzkatenak aurki daitezke Juan Carlos Robledorenean, “baita Antartikan zigilatutako gutun bat, eta XVIII. eta XIX. mendeak ere bai”.

Ondo zainduta egotea behar-beharrezkoa da: “Bai txanponek bai billeteek jatorrizko distira eduki behar dute eta ez dira gehiegi erabilia egon behar; horren arabera gehiago edo gutxiago ordainduko dizute”. Bestalde, historiaren zati txiki horien bilduma egitea ez ei da garestia. Robledoren berbetan, bildumagilearen alde erromantikoa galtzen doa: “eskaintza-eskariaren legea dago hemen ere; hau da, merkatu bat dago katalogo, enkante eta abarrek osatua”. m



UDALETXEAURREA BERRIZTATU DUTE

Amaitu dira dagoeneko Getxoko Udaletxearen kanpoko itxura berritzatzeko lanak. Hormak garbitu eta teilatua, kristalak, balkoiak, leihoak eta eraikina edertzen duten pinturak konpondu ostean, hauxe da orain Udaletxeak agertzen duen aurpegi berria. Lanak egitean, elementu horien guztien jatorrizko itxurari eusten ahalegindu dira. Orain, berritatzeko lanak eraikinaren barrualdetik jarraituko dute.

KURKUDI
LIBURU DENDA

Euskarazko
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

BEROGAILU ETA ITUR -

T: 430 53

HIRURAK

Sarrikobaso 15

ETXETIK?ELEKTROTRESNEN?KONPON -

Lacofris.s.l. SERVITEC

¥ MARKA GUZTIAK
¥ 24 ORDUTAN ERANTZU-
NA
¥ 3 HILABETEKOKO GARAN-
TIA
¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITU-
A

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

Una bala

Ibon Antuñano
getxoztarraren film laburra,
Tokioko zinemaldi
garrantzitsuan **garaile**

Beste sari bat lortu du Ibon Antuñano zinemagile getxoztarraren eta Edgar San Juan mexikarraren *Una bala* izenburuko film laburrak: Tokion antolatzen den “Shortshorts Film Festival” zinemaldia irabazi du, hain zuzen. Asian egiten den lehiaketarik garrantzitsuena da, eta aurt-
ten mundu osotik etorritako 40 film labor baino gehiagok parte hartu dute. Akira Kurosawa zuzendari mitikoaren semea izan da zinemaldiaren epaimahai-
ko buru, eta Antuñano eta San Juani eman zien 350.000 yeneko saria; horre-
taz gain, *Una bala* Asiako zinema-are-
toetan banatuko da. Baina film labor horren ibilbide arrakastatsua ez da Tokion geldituko, irailean Txinan eta gero Toronton egongo da-eta. ^m

Ibon Antuñano, Getxo Antzokian



"EUSKALHERRIA" ONTZIA, BERRIZ ABIAN

"Euskalherria", Getxoko kirol portua Santurtzi eta Portugaletegaz batzen duen itsasontzia, uretara bueltatu zen joan den ekainaren 23an. Irailaren erdia arte eskainiko du bere zerbitzua, eta arduradunek adierazi dutenez, iazko erabiltzaile kopurua (6.000 baino ez) gaintitzea espero dute. Hala ez balitz, baliteke zerbitzua bertan behera utzi behar izatea datozen urteetan. Izan ere, iazko udako eguraldi txarrak bidaia-
ri asko galdularazi zion "Euskalherria"-ri.

Iñaki Bildosola > Igerilaria

“Linfoma neukan; berriro lehiatzea ezinezkoa izango zela uste nuen”



Iñaki Bildosola, maila handiko igerilaria

Iñaki Bildosola algortarrak 20 urte bete berri ditu. Bederatzi urte zituenetik Fadura Igeriketa Taldean dabil; Euskadiko selekzioarekin ere igeri egin ohi du. Ian Thorpe eta Alexander Popov igerilariak miresten dituen gazte honen etxea dominez eta garaikurrez josita dago, baina gehien gogoratzen duen lorpena iazkoa da: Euskadiko errekorra egin zuen errelebotako 100 metroetan. Ibilbide arrakastatsu hori, ordea, eteteko zorian egon zen orain erabat gaingiduta daukan linfoma baten erruz.

—13 urte zenituela antzeman zizuten gai-
xotasuna. Zelan konturatu zinen zure gor-
putzan zeozer ez zebilela ondo?
—Gongoilak asko handitu zitzaizkidan. Hasiera batean ez genekien zer zen; medikuz mediku ibili ginen analisiak egiten, eta azke-
nean linfoma neukala eta kimioterapia jaso behar nuela esan zidaten. Guztira, zortzi hila-
bete eman nituen Gurutzetako Ospitalean.

—Eta berri horren aurrean, zein izan zen lehenengo erreakzioa?
—Beldurra, ez nekielako zer neukan-eta; gainera, orduan entzun nuen lehen aldiz nire bizitzan 'kimioterapia' hitza. Geroago, amorrua eta negarra etorri ziren; nire buruari galdetzen nion: *Zergatik niri?*
—Gainera korapilatsua den sasoian ger-
tatu zitzaizun: nerabezaroan...
—Horrela da. Burusoil nengoela-eta ez nuen etxetik ere atera gura, baina lagun-
en laguntzaz eta bisera batekin hasi nintzen irtetzen; lagunek asko animatu ninduten orduan.
—Kimioterapia oso gogorra izango zen, baina igeri egin ezin izango zenuela pent-
satzea are gogorragoa, ezta?
—Bai. Kimioterapia zela eta, jan barik egoten nintzen bizpahiru egunez, eta gor-
putzera zerbait sartzen nuenean, berehala botaka hasten nintzen. Bestalde, urte bi eman nituen, guztira, igerileku batera joan barik; eta noski, uste nuen ezinezkoa izan-
go zela igeriketa-txapelketetan berriro lehiatzea.

«Neure buruari galdetzen nion: Zergatik niri?»

—Ba esan daiteke galdutako denbora be-
rreskuratu duzula. Noiz osatu zinen?
—Beno, egia esanda ni ere txundituta na-
go... Hamalau urte bete nituenean osatu nintzen. Gaur, guztiz sendatuta nagoela esan daiteke, duela urte bi erabateko alta eman zidatelako.
—Eta pentsatzen al duzu inoiz linfoma berriro ager daitekeela?
—Noizean behin, errepikatzea ia ezinezkoa dela esan zidaten arren. Buruan beti egon-
go den gauza izango da hori, oso zaila da-
eta erabat ahaztea. ^m



Aragazkian, Txema Elortza, taldeko presidentea

Mende laurden futbola sustatzen irailean hasiko da Erromo F.T. urteurrena ospatzen

Erromo Futbol Taldeak hogeitabosgarren urtea du aurtengoa. Irailean hasiko dira urteurrena ospatzen, baina guk arinago ibili gura izan dugu, eta Txema Elortza klubeko presidentegaz berba egin dugu taldearen lehenaz eta orainaz.
Auzoko lagun talde batek sortu zuen Erromo taldea, Elortzak dioskunez. “1977-78 izan zen jokatu genuen lehen denboraldia; orduan talde bakarra zegoen, haur mailan. Bigarren denboraldian sortu zen gazte mailakoa”. Garai hartan hasi zen Erromon jokatzeko taldearen historiako jokalaririk ezagunena: geroago Athleticera

ailegatu zen Genar Andrinua.
Urteak joan, urteak etorri, talde be-
rriak sortzen hasi ziren, maila berrietan jokatu-
ko zutenak. Gaur egun, gazte mai-
lako, kadeteetako, haur mailako eta kimu-
etako bina talde eta kimuen aurreko eta benjaminetako talde bana dauka Erromo F.T.k, azken biak iaz sortuak.
Datorren denboraldian, esan bezala, 25. urteurrenaren ospakizunari ekingo dio-
te. “Gazte mailako txapelketa bat eta joka-
lari obien partidu bat egingo ditugu, beste-
ak beste”, iragarri du Elortzak. ^m

Harremanetarako: 94 464 44 11

GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

BAR ESPUELA ITURRIBIDE

XOSTEGUN KULTURALAK
XASTEBURUTAN
MARTXOIA 08
ELKARTOKIA ETA GIRO JATORRA

BARBIRULAU 5 BOST

erakusketak
antzerkia
dj.ak

ALGORTA

VILLAMONTEKO KULTUR ETXEA, LASTER ZABALIK

Algortako Kultur Etxearen egoitza berria uda honetan egongo da zabalik. Aurrerantzean, orain arte Urgullen egon diren hainbat zerbitzu -liburutegia, erakustaretoa eta Kultur Etxearen bulego nagusiak- Villamonten egongo dira. Hau idazteko momentuan, lanaren azken xehetasunak burutzea eta altzariak ekartzea baino ez zen falta dena prest egoteko.

NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA UZTAILEAN

Kultur Etxeak antolatutako XIX. Nazioarteko Folklore Jaialdia uztailaren 22, 23 eta 24an ospatuko da Algortako Biotz Alai plazan. Egunero talde bi arituko dira, gaueko 10etatik aurrera, eta aurt-
en Txetxenia, Kenya, Korea, India eta Sakha-Yakutiako taldeek parte hartuko dute. Euskal Herriko dantzak ere ez dira faltako, Getxoko Itxartu dantza taldearen eskutik, ohi denez. Uztailaren 24an dantzatzeko dute itxartutarrek, Sanda Sakha-Yakutiako taldearen ostean.

Kenyakoko dantzak eta musika egongo dira



Mendibile

historia apur bat

Mendibile jauregia Leioako eraikinik ezagunenetakoa da. Ez da berez jauregia, baseria baizik, baina izen hori ematen zaio daukan itxura dotoreagatik eta tamaina handiagatik. Hainbat agirik frogatzen dutenez, 1526an bazegoen baserri bat leku berean; dena dela, gaurko eraikin barrokoa XVII. mendearen amaiera eta XVIII.aren hasiera artean egina da.

XX. mendearen erdialdean lanak egin zituzten eraikinean, ordura arteko etxebizitza bien ordez bost egon zitezen, eta horrek nahiko aldatu zuen baserriaren itxura. 1996an, egoera negargarrian zegoela eta, ugazabak Udaletxeari utzi zion Mendibile. Orain berregokitze lanak egiten dabilta, eta laster Bizkaiko Txakolinaren Jatorrizko Izendapenaren Kontseilu Arautzailearen egoitza egongo da bertan. ^m

Udala zaharberitze lanak egiten ari da Mendibilen



Lamiako auzoaren erdigunea

Lamiako berria dator

Auzoa berризatzeko, egoera txarrean dauden
169 etxebizitza botako dira

Udaletxeak duela gutxi jakinarazi duenez, hemendik gutxira ekingo zaie Lamiako eta Txopoeta auzoen berregokitzelanei. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak oniritzia eman eta gero, laster hasiko dira, udal iturriek adierazi dutenez, proiektuaren lehiaketa publikoaren oinarriak idazten. Sainz de la Maza alkateak esandakoaren arabera, lana hartzen duen enpresaren lehen eginbeharra proiektuak ikutuko dituen auzokideakaz harremanean jartzea izango da.

Lamiakoko Auzokideen Elkarteko presidentek Luis Torresek dioenez, “*euron etxea utzi beharko dutenakaz egin beharreko negoziatzioa izango da proiektuaren alderdirik zailena*”. Bestalde, Torresek poz handiz hartu du proiektu berria: “*Denbora luzea da honelako zeezer lortzeko ahaleginetan gabiltzala*”, diosku, “*urte askoan gure kezka agertu ostean, azkenik jaramon egin ziguten, eta Lamiakoko etxeen egoera aztertu zuten*”. Azterketa horren arabera, 169 etxeren egoera negargarria da guztiz, eta horietatik 169 botako direnak. ^m

Joxean Ramos eta “Kixkur” >

Ardi bako “artzainak”



Aldundiak Kixkur erabili gura du euskal artzain arrazaren berreskuratze-prozesu bati ekiteko

Joxean Ramosek barne-diseinu enpresa bat dauka Leioan. Kaletar petoa izanik, azken boladan orain arte guztiz arrotz izan duen giro batean murgiltzen da noizero, duela urte bi erosi zuen txakurrari esker.

“*Betidanik txakurra eduki gura izan dut, baina ez edozein txakur*”. Eta hala, Kixkur euskal artzaina erosi zuen, hilabete bat baino ez zeukala, eta apurka-apurka, txakur ona zela konturatuz joan zen. “*Albaitariak esan zidan merezi zuela txapelketetara aurkeztea, eta hala egin nuen*”.

Euskal artzain izendapena eskuratu

gura duen txakurrak azterketa-txapelketa bat gainditu behar du Busturian. “*Kixkur eroan nuen, eta hara non irabazle suertatu zen, aipamen berezi eta guzti*”. Harrezkeroztik, hainbat lehiaketataroan du Kixkur, lanak uzten dionean, eta beti emaitza onagaz. “*Ez daki uhalaz ibiltzen, eta nik ez diot erakutsi gura. Hori du oztupo nagusia txapelketetan. Gainerakoan, dauzkan dohaiak genetikak eman dizkio*”. Orain, Bizkaiko Aldundiak, Kixkur erabili gura du euskal artzain arrazaren berreskuratze-prozesu bati ekiteko. ^m

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak
Boluntarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian



SATISTEGI
CAFE

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



ERROTULOAK



THE BEST
UNE-UNEKO ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

Bonbolinak

hiru Elektra sari jaso ditu

Ekainaren 8an Elektra sariak banatu ziren Getxo Antzokian. Getxoko Antzerki Eskolak antolatzen du “Camino de Mujer” zirkuitua, eta euren esku geratzen da sarien banaketa aurkeztea. Aurtengo laugarren edizio honetan, lau sari behar-rean bost egon dira, berdinketa bat gertatu delako. Sarietako hiru “Bonbolinak” taldeak jaso ditu.

Publikoak ematen duen saria “Koloré” taldeak irabazi zuen. Zuzendaririk onenarena, berriz, “Bonbolinak” taldeko Aintza Uriartek. Obrarik onena Bonbolinaren “El Nacional” izendatu zuten, eta azkenik, berdinketa izan zen aktore-sari onenaren sarian: sail horretako Elektra sariak “Azitia” taldeko Maribel Zapatak eta “Bonbolinak” taldeko Aiora Sedanak jaso zituzten. ^m

Oso pozik

Aho bete hortz geratu nintzen nire izena entzun nuenean. Bai, nik neuk jaso nuen saria. A ze poztasuna! Benetan ez nuela espero. “El Nacional” antzezlan berezia da Bonbolinak taldeko guztientzat. Ez du zerikusirik aurretik egindakoarekin. Energia pilo bat gastatu eta gastatzen dugu egiterakoan. Obraren pertsonaiak benetan bereziak dira eta ondo pasatu dugu haiek antzeztzen. Izan ere, Erandioko jaietan obra berriro antzeztuko dugu, ziur asko azkenengo aldiz.

Denbora faltagatik Bonbolina taldea utzi behar izan dut eta agur ezin hobia izan da hiru sari horiek jasotzea. Motibazio eta bultzada handia da, pertsona batentzat, sari bat jasotzea. Jendeak uste du lan eskaintza ugari jasoko ditudala –hori esaten didate behintzat– baina ez dut uste horrela izango denik. Hogeita bat urterekin sari bat jaso izanak oso pozten nau eta hemendik aurrera lanari indar gehiagoz ekingo diot. ⁴

Aiora Sedano

Mendiz mendi beharrean

Alejandro Arriola eta Aitor eta Asier Zabala anaia erandioztarrek 18.000 zuhaitz landatu dituzte Asurdi mendian, azken 20 urteotan Erandion berreskuraturiko lehen berdegunean.



Asier Zabalak Luberri Basolanak enpresa sortu zuen, Aitor anaia eta Alejandro Arriolarekin batera

Erandioko mendialdea ez da ezaguna, ezta erandioztarrentzat ere. Esan daiteke, esploratzaile sena duten bakan batzuk baino ez direla urruntzen, noizbehinka, Akarlanda Parkeaz haratago, bidezidor eta sastraketan barrena. Esploratzaileak esploratzaile, mendi eta ortuen zaintza lan-bide duten hiru gazte ditugu gurean: Asier eta Aitor Zabala anaia eta Alejandro Arriola.

Duela sei urte inguru Zabala anaiek Luberri Basolanak izeneko enpresa sortu zuten, Arriola beraren laguntzaz, eta harrezkero mendiz mendi dabilta behar-rean, batean Bizkaiko iparraldekoetan, bestean hegoaldekoetan, noiz mendebaldekoetan, noiz ekialdekoetan. Sei urte horrela igarota, ordea, aukera heldu zaie Erandioko Udalaren eskutik etxetik hurbil jarduteko, Akarlanda parkearekin muga egiten duen Asurdi mendian, hain zuzen.

Azken hilabeteotan, zenbait bidezidor egokitzeaz gain, 18.000 zuhaitz landatu

dituzte inguru horretan: haritz, lizar, makal, haltz, astigar, gaztainondo, pago, gereziondo, urki eta abarrak. Proiektu honek 90.150 euroko aurrekontua izan du, eta Asier Zabalak “garrantzitsu” deritzo, besteak beste, hauxe izan da-eta azken 20 urteotan burutu den bakarra Erandioko mendiak zaintzeko. “*Badirudi orain Udalak inguru hori zaintzeari eutsiko diola*” dio, itxaropentsu.

«Erandiobasoko ingurua eta Akarlandarako bidea ere garbitu dute»

Asurdi mendikoak ez ezik, bestelako lan txikiagoak ere egin ditu Luberri Basolanak Erandion azken hilabeteotan; esate baterako, Erandiobasoko ingurua garbitu –bertako bidezidorrak berreskuratuz eta pinuak inausiz–, eta Goierriko Urgitxi garbitegiaren ingurutik Akarlanda parkerantzako bidetxoa zabaldu. ^m



Ikasleek kurtso amaierako entzunaldia eskaini zuten Goikoako Andra Mari elizan

Musika eskola

283 lagunek ikasi dute aurten eskolan

Ekainaren 20an, Erandioko Udal Musika eskolako ikasleek kurtso amaierako entzunaldia eskaini zuten Erandio Goikoako Andra Mari Elizan. Kontzertua, tronpeteta eta piano musikaz hasi eta abesbatzaren ahotsez amaitu zen, bitartean, txirulak, akordeoiak, biolina, txeloak, gitarra eta denek ere bere aukera izan zutela. 150 pertsona inguru bildu ziren Eskolako ikasleen ekitaldia entzuteko.

Ikasturtea amaitu da, eta egindakoa neurtzeko egokia izaten da zenbakien bitartez erradiografia egitea. Ondoko hauek dira Musika Eskolako datuak 2002-2003 ikasturtean: Guztira 283 ikasle. Gaztetxoan,

4 eta 6 urte bitarteko 55 haur. Gero, beste ehun, 6 eta 11 urte bitartekoak. 12 eta 18 urte bitartekoak 54 ikasle, eta 17 gehiago adinez nagusiak, 19 eta 25 urte bitartekoak. 25-65 bitarteko gazte eta ez hain gazteak, 50; eta azkenik, musika ikasteak adinik ez duela argi uzten dutenak: 65 urte baino gehiagoko hiru ikasle.

Ikasleek zer aukeratu duten aztertuz, ondoko datuak ditugu: piano ikasleak 58, gitarrakoak 30, biolinjoleak 23, akordeoiak, berriz, 27 lagun, trikitixak 10, panderoak 4, saxoari ekiten 13, biolontxeloak 9, tronpetajoleak 8, eta beste zenbait klarineta eta bateria ikastera emanak. ^m

KUKULARRA AUZOKO JAIK

Aurrekontu urriaz baina auzolan eredugarriaz, aurten ere jaiak ospatu dira Kukularra auzoan. San Pedro egunaren inguruan ospatzen badira ere, auzokoek argi utzi nahi izan dute ez direla “San Pedro jaiak”, ekainaren amaierakoak baizik. Hainbat urteko etena izan zuten jai hauek hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan, baina auzokoen ahaleginari esker bizirik diraute... Argazkietan 1963ko jaietako kukaña eta auzoko ume eta gazteak.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

MUGI

FISIOTERAPIA ZENTRUA

X

Tendinitisa

X

Esgintzeak

zatoz

gure

zentrura!

Erreuma

Kiroleko

lesioak

Loitzun Izaola

Azkona

Fisioterapeuta, 459 kolegiatu zenbakia

Mendieta 2, SOPELA

617 67 45 36

LAIK

Taberna

Bentatxu, 2

48600 Sopela

Tlf. 94 676 03 28

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari

supermerkatua

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:40-21:00

Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:00

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

[sopela]

Hondurasko istorioak

José M^a Sáez

sopeloztarrak

eskola bat

eraiki du

Guanchías

izeneko herritxoan

Sáezi (eskuinean) oroigarri bat eman zioten Guanchías-en, egindako lana eskertzeko

Hilabete

besterik ez du pasa, baina den-

bora horretan bizitzeko beste modu bat

dagoela ikasi du. *Sembrando Futuro*

GKEaren kidea den José M^a Sáez sope-

loztarra itzuli da Hondurasko Guanchías

herrixkatik, 52 ikaslerentzako eskola bat

eraikitzen lagundu ondoren. “*Oso labur*

egin zait”, diosku. “*Hango jendea zoriont-*

sua da daukan apurrarekin. Asko ikasi dut

berengandik”.

Sáez sail ureztatuan ere aritu da:

“*Horri esker beste labore mota batzuk dau-*

dela ezagutu dute, artoa eta gariatz gain”.

Tomateak eta piperrak bezalako baraz-

kiak landatzen ikasi dute Guanchías-

ekoek, baita jateko prestatzen ere: “*En-*

tsaladak, indabak, pistoa eta gisatuak pre-

statzen irakatsi diegu; eta beste okelarik ez

zegoenez, usoena erabiltzen genuen gisatua

egiteko”.

38 eta 45 gradu bitarteko beroa, eta

%90eko hezetasuna ezagutu ditu José

M^a Sáezek; eramanezina lan egiteko, bai

eta bizikletan ibiltzeko ere, hori erabili

duelako garraiorako: “*Egunero 20 bat*

kilometro egiten nituen bide deserosetatik.

Lehenengo astean hilko nintzela uste

nuen”. Hala ere, berriro joateko asmoa

dauka, “*agian urtearen amaieran*”; osasun

kontsultarako lekua eraikiko luke or-

duan, “*Hondurasko gobernuak medikuren*

bat bidaltzen badu, noski”. m

[larrabasterra]ailetan]

Koadrillen jaitsierak gero eta jende gehiago biltzen du

Larrabasterraren txanda

Musika ekitaldi garrantzitsuak

egongo

dira Karmenetan eta Santa Marina egunean

Sanpedroak duela gutxi amaitu dira, eta honezkero Karmengo jaien eta Santa Marina egunaren zain daude sopeloztarrak. Uztailaren 16an, Karmengo egunean bertan, hasiko dira Larrabasterrako jaiak. Aurtengo egitarautik Oskorri eta Beta-garriren kontzertuak nabarmendu behar dira: lehenengoa uztailaren 16an izango da, hain zuzen ere; bigarrena uztailaren 17an. Biak gaueko 10etan.

Uztailaren 19an (zapatua) amaituko dira Karmengo jaiak. Egun hori, jaietako arduraduna den Mirian Arriagak esan digunez, Marmitako Eguna izango da, eta “*ekitaldi guztiak Urkon egingo dira, arratsaldeko moda desfilea izan ezik*”. Egun horretako erromeria Joselu Anaiak talde ezagunaren eskutik etorriko zaigu. Bezperan, uztailaren 18an, Kresala izango da gorputzak dantzan ipiniko dituen. Erromeriok gaueko 11:30etan hasiko dira.

Jaia ez da gauez bakarrik bizitzen, jakina. Egunez egingo diren ekitaldien artean, koadrillen txapelketa (uztailaren 16, 17 eta 18an izango dira jaitsierak, arratsaldez), Gorriti eta bere animalien ikuskizuna (uztailaren 19an, arratsaldeko 5:30etan) edota Berangoko Otxandategi dantza taldearen emanaldia (18an, arratsaldeko 8:30etan) aipa ditzakegu.

Alaitz eta Maider
Larrabasterrako jaiak amaitu eta bihar-munean, uztailaren 20an, Santa Marina eguna ospatuko da. Aurren, berrikuntza modura, kontzertua Urgitxieta plazan egingo da. Mirian Arriagak azaldu digunez, “*bertako antzestokia erabili gura genuen, Santa Marinan bertan paratzea nahikoa lan da eta*”. Arratsaldeko 8:30etan hasiko da dantzaldia, Alaitz eta Maider gipuzkoar trikitilari gazteen eskutik. m

galdaretxe

gozodenda

• GETXO

• AREETA

• LEIOA

• ALGORTA

• SOPELA

ZUTARRI

TABERNA ETA KAFETEGIA

GATZARRIÑE, 12A LO.

(LARRABASTERRA METRO GELTOKIA)

TF: 94 676 33 17

KUX - KUX

jatetxea

Gatzarriñe, 3 / Larrabasterra

Tf: 94 676 12 13

Jai zoriontsuak

larrabastertar

guztioi!!!

UK aldizkaria

18UK

UK 19

Mendian gora arrapaladan

Josu Ugarte lasterketa-auto gidariak uztailaren 12an egingo den Berangoko Lehenengo Igoera antolatu du

Uztailaren 12an Berango itxura bitxiko autoz beteko da. Josu Ugarte leioaztarra da horren “erruduna”, berak antolatu du-eta Berangoko Lehenengo Igoera. Ez nahastu; ez da rallya. *“Igoera laburra da, eta oso azkar egiten da”,* azaldu digu Josuk, *“eta rallyak egun osoa irauten du jeneralean”.*

Josuk urtebete eta erdi daroa Berangon bizitzen. Aspalditik ibiltzen da auto lasterke-tetan, amateur mailan, eta dioskunez, *“lasterketa guztiak etxetik urrun izaten dira beti, eta nik gogoia neukan hurbilago egiteko, baina inork ez zuen antolatzeke ardura hartu gura”.* Azkenean, Berangoko alkatea mota honeta-ko lasterketak ikustera joaten zela ikusita, hari baimen eskatzeko erabakia hartu zuen Josuk. Baita lortu ere.

«**Ordua egokiena ez den arren, 7.000 edo 8.000 lagun etorriko direla uste du Josu Ugartek**»

Ondorioz, auto-igoera izango da Berangon. Aurtengoan oraindik ez, baina datorren urtetik aurrera Euskadiko Txapelketan sartuko dute modu ofizialean. Zelan-gura, maila ona edukiko du uztailaren 12koak. *“Martin Vilariño etorriko da, Pan-*



Josu Ugarte (eskuinean) eta bere autoa

txo Egozkue ere bai... Sarritan Europako txapel-dun izandako gidariez gabilza berbetan”.

Josu Ugartek bizkarreratu du antolake-taren zamaren zatirik handiena. Lasterke-taren egunean, berak ere bere autoa gidatu-ko du, ustez etorriko diren milaka ikusleen

aurrean. *“Ordua [eguerdiko hamabiak] ez da guk gura genukeena, baina 7.000 lagun-edo etortea ez litzateke harritzekoa”.* Ibilbideak 3 kilometro inguru dauzka Eguzkitza eta Sustatxa bideetan gora eta, antza, pare bat minutu nahikoa dira osorik egiteko. m

Infernqueta, zuhaitzen txokoa



Infernqueta inguruak, Berangon

Berangoko Udalak bertoko hainbat zuhaitz-espezie landatu ditu Infernquetako inguruan. Berangoko eta Bizkaia osoko txoko askotan bezala, eukalipto ugari landatu dira bertan, baina Udaletxearena den lur sail baten izan ezik; Ingurugiroa Hobetzeko Planaren barruko ekintza legez, bertan haritzak, urritzak eta gaztainondoak landatu dituzte, besteak beste. Gainera, informazio-panelak paratu dituzte duela gutxi, gura duenak hobeto ezagut ditzan Infernquetan dauden hogeiren bat bertoko espezieen ezaugarriak. Bestaldde, paneletan ingurua ezagutzeko ibilbiderik egokienaren berri ematen da.

GERO ETA GEHIAGO BERZIKLATZEN DA

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak emandako datuen arabera, gero eta paper, ontzi eta beira gehiago berziklatzen da bertako zazpi herrietan. Berango ez da salbuespena; ontzei dagokienez, esaterako, 1999tik 2002ra bikoiztu egin da jasotako kopurua. 1999an 20.010 kg. batu ziren, eta 2002an 44.937. 2003ko zenbakiak aditzera ematen dutenez (apirilera arteko datuak dira), aurten ere iazko maila bertsuan egongo da batutakoaren kopurua.

Beirari erreparatzen badiogu, berriz, goranzko joera ez da hain agerikoa. 2002an, esaterako, 2001ean baino ia 5.000 kg gehiago batu ziren, baina biztanleko kopurua apur bat txikiagoa izan zen. 2003ko lehen lau hilabeteetan, gainera, iazko epealdi berean baino 2.500 kg. batu dira. Dena dela, joera hori aldatzen hasia zen aurtengo apirilera.



aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA
20º ANIVERSARIO
URTEURRENA



KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

cianoplan s.a.

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

krimea
taberna

Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA

[herriak]

PLENTZIA Perretxikoen astea



Argazkian, Koldo Ugartetxe perretxikoetan aditua

Plentziako Perretxiko eta Itsaski Taldea herriko elkarte beteranoetako bat da. 24 urte daroaz perretxikoen gaineko ekitaldiak antolatzen; *“hasieran erakusketak egi-ten ziren”*, dio taldeko kide Koldo Ugartetxek, *“gero, duela zazpi urte, aste mikolo-gikoa antolatzen hasi ginen, elkarteko lehen presidentea izan zen Roberto Lotina zen-duaren omenez”*.

Uztailaren 7an (astelehena) hasiko da aurtengo ekitaldi sorta eta, ohi bezala, hitzaldiak eta filmak tartekatuko ditu. Guz-tira, hiru hitzaldi eta film bi emango dira, Goñi Portal kultur gunean (zapatuan,

GORLIZ Golf eskola herrian

Uztaila hasiera honetan egongo da era-biltzeko prest udal kiroldegian egin duten golf eskola. *“Eskolaren helburua, Derion da-goenarena bezala, gutxien dakitenek golf zelai batera joan baino lehenago jardun ahal izatea, eta adituagoak direnek euren trebetasuna lantzeko aukera edukitea da”*, udalerriko agintariak eskolaren eraikuntza-ren berri eman zutenean adierazi zute-

azken egunean, filmak errepikatuko dira).

Ugartetxek dioenez, aste mikologiko-ak oso harrera ona du herrian. Perretxiko zaletasun handia ei dago inguru honetan, baina hala ere, *“zaletasuna gehiago da jate-ko, aztertze-ko baino”*. Zelangura, Perre-txiko eta Itsaski Taldeak antolatzen dituen ekitaldiek jateko garaian arriskua gutxia-gotzeko balio dezakete: *“Arlo honetan ga-biltzanok zabaldu egin behar ditugu geure ezaupideak, eta behintzat, inguru honetan kaltegarriak diren lau perretxikoak zeint-zuk diren jakinarazi, ez dadila ezbeharrik gerta”*. m

nez. Golf eskolak 60 metroko sakonera-ko belardia, hamabi postu, 13 metroko altuerako zutoinak eta sarea edukiko ditu. Lanok egiteko aurrekontua 78.131 eurokoa izan da.

Hemendik aurrera, enpresa batek hartuko du kudeaketaren ardura, eta Uda-letxeak esan duenez, *“aurreratu dugun di-rua berreskuratuko dugu”*. m

Uztailak 6-Uztailak 20

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: **aldizkaria@euskalnet.net** • Tel.: **94 491 13 37** • Faxa: **94 491 58 31**

ERAKUSKETAK

ERANDIO
 ▶ **Ertibil, margolari hasi berrien erakusketa.** Josu Muruetan. Uztailaren 13ra arte.

GORLIZ
 ▶ **Enrique López Suárezen margo-lanak.** Udal erakusgelan (José Antonio Agirre plazan). Uztailaren 10era arte.
 ▶ **Ignacio Olabarrietaren eta Jon de la Huertaren margolan eta ergazki erakusketa** . Udal erakusge-lan (José Antonio Agirre plazan). Uztailaren 11tik 18ra arte.

PLENTZIA
 ▶ **Ana Ansotegiren margolanak.** Goñi Portalen. Uztailaren 1etik 15era arte.
 ▶ **Beatriz Solerren margolanak.** Goñi Portalen. Uztailaren 16tik 30era arte.

URDULIZ
 ▶ **Pintura erakusketa (helduen tai-lerrak).** Kultur Etxean. Uztailaren 4tik 16ra.
 ▶ **Zur eta ehoziri erakusketa (hel-duen tailerrak).** Kultur Etxean. Uztailaren 18tik 30era.

IRTEERAK

PLENTZIA
 ▶ **Sanferminetara irteera.** Uztailak 12, zapatua. Irteera: 20:00etan. Itzulera: 8:30etan. Izen ematea uztai-laren 7a arte, Goñi Portalen (94 677 55 41).
 ▶ **Santa Magdalena itsas errome-riara irteera.** Uztailak 22, martitzena. Irteera: 10:00etan. Itzulera: 20:30etan. Izen ematea uztailaren 16a arte, Goñi Portalen (94 677 55 41).

MUSIKA

GETXO
 ▶ **XV. Banda jaialdia.** Areatzako Bandaren ekitaldia. Lehenago kalejira Basagoiti etorbidean. Uztailak 11 osteguna, Algortako Biotz Alai plazan.
 ▶ **Uribe Bazterreko Bandaren** ekitaldia. Lehenago kalejira Basagoiti etorbidean. Uztailak 12 ostirala, Algortako Biotz Alai plazan.

BARRIKA
 ▶ **Juan de Diego-Friki Trio.** *Golfo Norte*-n. Uztailak 12, zapatua. 23:00.

▶ **BERTSOLARITZA**

Jaialdi Mundiala

Ohitura da honezkero uztailaren hasieran bertso saio handia egitea Algortan, jazzaldia eta beste hainbat kultur ekitaldi hartzen dituen karpapean. Kartelak iragartzten duen moduan, saioa mundiala izango da, izan ere, punta puntako bertsolariek hartuko dute parte: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Fredi Paia. Gaijartzaile: Aitzol de Kastro.

• **Non:** Biotz Alai plazan • **Noiz:** Uztailak 9 (asteazkena) • **Ordua:** 22:00

▶ **The Reverendos.** *Golfo Norte*-n. Uztailak 19, zapatua. 23:00.

GORLIZ
 ▶ **Jon Urrutia jazz laukotea.** Elizan. Uztailak 18, barikua. 20:15.
 ▶ **Sinfonietta Ricerare ganbera-orkestra.** Euskal abesti liriko berrien estreinua. Elizan. Uztailak 19, zapatua. 20:30.

ZINEMA

GETXO
 ▶ **Gaurik laburrena.** Uztailaren 7 eta 8an, film laburrak protagonista izango dira Getxon. Erdarazko hamabi lan (uztailaren 7an) eta euskarazko bost (uztailaren 8an) ikusi ahal izango dira Biotz Alai plazan gaueko hamarretatik aurrera.

GORLIZ
 ▶ **Zinema plazan.** Uztailak 13 eta uztailak 20. 22:30.

URDULIZ
 ▶ **El rey escorpión.** Lehendakari Agirre plazan. Uztailak 8, martitzena. 22:30.
 ▶ **Men in Black II.** Lehendakari

Agirre plazan. Uztailak 22, martitzena. 22:30.

BESTERIK

GETXO
 ▶ **V. Bertso saio mundiala.** Algortako Biotz Alai plazan, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Fredi Paia. Gaijartzailea: Aitzol de Kastro. Uztailak 9, eguaztena. 22:00.

▶ **Udako liburutegiak-Letren terrazak.** Algortako Geltokiko plazan, Getxoko

Sarri plazan eta Areetako Geltokiko plazan, kale liburutegiak Uztailaren 8tik abuztuaren 31a arte. Ordutegia: 11:30-14:00 eta 17:30-20:30, egunero.

GORLIZ
 ▶ **Bizkaiko ur azpiko arrantza txapelketa.** Irteera Astondo hondartzatik. Uztailak 20, domeka. 9:00.

PLENTZIA
 ▶ **Aste mikologikoa.** Goñi Portalen. Uztailak 7, astelehena: Hitzaldia: Quercus generoko perretxikoak. Hizlaria: Roberto Fernández Sasia. 19:30. Uztailak 8, martitzena: Setas filmaren emanaldia. 12:00 eta 19:00. Uztailak 9, eguaztena: Hitzaldia: Ibilaldi mikologiko bat. Mario Maguregiren eskutik. 19:00. uztailak 10, eguena: *Los hongos y el hombre* filmaren emanaldia. 12:00 eta 19:00. Uztailak 11, barikua: Hitzaldia: Makailaoa perretxikoekin. Hizlaria: Aitor Elizegi. 19:00.
 ▶ **Destellos** liburuaren aurkezpena. Goñi Portalen, Raysa Hornillos plentziar idazlearen *Destellos* poesia liburuaren aurkezpena. Uztailak 17, eguena. 20:00.

LASTER

GETXO
 ▶ **Nazioarteko XIX Folklore jaialdia.** Uztailaren 22, 23 eta 24an ospatuko da Algortako Biotz Alai plazan. Aurtén Txetxenia, Kenya, Korea, India eta Sakha-Yakutiako taldeek parte hartuko dute. Getxoko Itxartu dantza taldeak Euskal Herria ordezkatzuko du, ohi denez. Uztailaren 24an dantzatzuko dute itxartutarrek, Sandal Sakha-Yakutiako taldearen ostean.
 ▶ **Paella Eguna.** Ohi bezala Aixerrota inguruko landetan uztailaren 25ean, Paella Eguna ospatuko dute milaka getxoztarrek. Jai handi hau Itxas Argia elkarteko lagunek posible egi-ten dute urtero.

namaika hida

zenbat gara elkartea

1 Kafe Antzokia Bilbo

2 Kafe Antzokia Ondarroa

3 Ondarroako Arrigorri itsas ostautua

4 Algara konpartsa

5 Zaparrada Gaztegunea

6 Olgetan Umegegunea

7 Elkartearen zerbitzu, ikastaro eta tailerrak

8 Bakaikuko etxea

9 Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm

10 Zenbat Gara aldizkaria

11 Gara argitaletxea



[albuma]



Gorpuzti eguna

Gaur egun inork gutxi badaki ere, *Gorpuzti eguna* eliza katolikoak, aspaldi, eukaristiaren erakuntza ospatzeko ezarritako jai eguna da. Ohiturari eutsiz eta urtero legez, algortarrek Portu Zaharrean ospatu zuten egun berezi hau. San Nikolas elizako abadeek meza esan eta gero, Biotz Alai abesbatzako lagunek euren doinuekin bete zuten auzo arrantzalea. Ondoren, jakina, sardina jana!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Bertsolari, irakasle, idazle, itzultzaile... hainbat modutan izenda dezakegula esan digu Xabier Amurizak, jarduera horietan guztietan ibili delako edo dabilelako. Etxanon jaio zen Xabier, Etxano udalerria zen garaian, eta urte mor-doa daroa euskal kulturaren eta politikagintzaren lehen lerroan. Bertsolari aparta da, dohaitsua, euskara ahoz nahiz idatziz, plazan nahiz paperean, maisutasunez darabilena. Orain, *Anboto* herri aldizkarian dabil hizkuntz zuzentzaile lanetan, baina ez dio idazteari uzten. Argitaratu duen azken liburuan Rufino Arrola trikitilari lemoiztarraren bizitza mamitsuaren berri ekarri digu. Amurizarena berarena ere ez da arrunta!

Xabier Amuriza

Etxanoko berba-jostuna

Testua: **Unai Brea**

—1979an Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako txapelduna izan zinen lehen aldiz. Orduan bertsolaritzan iraultza txiki bat egin zenuela esaten zen eta oraindik esaten da. Bat zatoz?

—Ez dakit ba. Esaten badabe zeozer egongo da. Nik ordurako hiztegi errimatu eginda neukan, bertsolaritzari buruz hainbat gauza idatzita neukazan, gizon

analfabetoen euskera, hori zen euskera freskoa. Euskal Herri guztirako balio eike-ena ez zen kontsideratzen euskera freskoa edo balioduna. Apustu hori oso konstzienteki eta jakinez egin neban, Euskal Herriko txapelketan gainera. Batua martxan ebilen, gitxi-asko onartua, gitxiago ondiño asko baino, eta pentsa neban: hemen jardun neike, ahozko literaturaren

ritzak, zer aldaketa?

—Gauza asko aldatu dira. Batez be bertsolarien ezaugarriak, euren erreferentzia kulturalak, azken batez eskolatua izan eta ez izatearen arteko aldea da. Karrera bat egin dauenak ez dau bertsolaritza bakarrik landu, beste gauza asko ikusi ditu: zientzia, literatura... Badeko beste ikuspegi bat, askoz gehiago irakurri dau, idatzi be bai (gaurko bertsolari asko idazleak dira), eta buruan dekona diferentea da. Mundua bera be asko aldatu da. Nik ume denboran etxean ez dot ikusi argirik ez urik hamasei edo hamazazpi urtera arte, eta orain hemen nago zugaz telefonoan berbetan eta ordenagailua izotuta. Pentsa zer alde dagoen.

—Esaten da bertsotan egiten den euskara maila gero eta kaxkarragoa dela. Oso ezagunak izan ziren, esaterako, Euzkitzek bere garaian esandakoak, txapeldunorde geratu zen txapelketa baten ostean...

—Bai, baina orain bere programan egiten dan euskera be zer? Oro har, euskeraren kalitatea alde batzuetan indartu egin da, sendotu egin da, eta bestetan ez. Inoiz

“1979an batua erabiltea nobedade handia izan zen bertsolaritzarentzat”


karreraduna nintzan, eta hori nobedadea zan. Normala denez, holako gizon batek zeozer diferentea ekarri behar eutson bertsolaritza tradizionalari baserritar edo artzainen aldean.

—Txapela jantzi zenuen, baina egon zen kritikarik. Besteak beste, euskara artifizialegia erabiltzen ei zenuelako...

—Hori nobedade handiegia izan zan orduko bertsolaritzarentzat, bertsolaritza probintzianoarentzat, esan daigun. Euskera eskolabakoa izan behar zan, apur bat

jardunik enblematikoenetako batean, euskera batuaz, eta demostratuko dot euskera batuak balio dauela bertsotan egiteko eta Euskal Herri osoan alkarregaz komunikateko. Hori egin neban eta uste dot lorpena izan zela. Alde horretatik, hori berori be izan zeikeen iraultza txiki bat, bai. Eta kritika handiak izan nebazan baina aldekoak be bai.

—Bertsolaritza aztertu duzu eta hainbat liburu idatzi duzu haren historiaren gainean. Zer bilakabide eduki du bertsola-



JUAN CARLOS ELORZA (AFGAZKI PRESS)

baino hobeto idazten da, baina inoiz baino txartoago berba egiten da. Bertsolaritzan bere hori gertatzen da. Danok konturatzen gara horretaz baina ez dakigu zelan aurre egin.

—Makina bat liburu argitaratu duzu, baina 1987tik eleberririk ez. Bueltatzeko asmorik?

—Bai. Bertsolaritzaren inguruan idaztekoak badekodaz idatzita. Orain nire burua beste gauza batzuetan dabil, horiek lehenagoko kontuak dira. Ez dot uste horretaz gehiago idatziko dodanik.


—Euskal mundua atzera doala ematen du, Euskal Herriaren erreferentzia kulturalak atzera doazela...

—Hala da. Kalea, mundua, erdaldunak dira, eta hori nabariagoa da geure medietan be hori islatzen danean. Erreferentzia kulturalak falta doguz, eta kultura indartsua falta dogu. Hiztunak oso gitxi gara, estatistiketan agertzen da hiztunak asko garela, baina euskeraz bizi garenak oso gitxi gara, eta ghettoetan bizi gara. Bakoitza bere putzuan bizi da, batez be uri handietan bizi diren euskaldunak. ^m

“Euskeraz bizi garenak oso gitxi gara, eta ghettoetan bizi gara”

Bizitza gorabeheratsua

Xabier Amuriza Etxanoko baserri batean jaio zen 1941ean. Abadea zela, frankismoaren aurkako borroka kartzelara eroan zuen. Zamorako espetxean egon zen zazpi urtez, eta handik irtendakoan abade izateari utzi zion. 1977an izan zen hori. Urte bi geroago, 1979an (eta 1982an berriro), Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa irabazi zuen, guztiz estilo berritzaileagaz. Liburu askoren egilea da Amuriza, tartean hiru eleberrirena. Lan ugari plazaratu ditu bertsolaritzaz, bai eta koplagingtzaz (kuttuna duen gai bat, bertsolaritzaren aurretik ere). Gaur egun Berrizen bizi da.



Argazkiotan Saharatik etorritako umeak hemen jaso dituzten lagunekin. Gainean, Tinduf-eko eskola bat.

Saharatik Uribe

Azken urteotan ohitura bihurtu da udan Saharako umeak etortea gurera, hemengo familiakaz pare bat hilabete igarotzera. Hasieran erakundeek bultzatutako ekimen hori, apurka-apurka, herrietan sortuz joan diren elkarteek hartu dute bere gain, udaletxeen laguntzagaz beti ere. Uribe Kostan lan horretan dabiltzanakaz berba egin dugu; gutxi dira, eta hasierako nobedadeak eragindako gorakada igarota, azken boladan zailtasunak eduki dituzte, oro har, euren helburuak betetzeko. Aurton, batik bat. Zelangura, Getxon, Leioan, Erandion eta Gorlizen Saharako umeak egongo dira uda honetan ere, uztailaren 7tik aurrera.

Testua: **Unai Brea**

Hilari Kintana Erandioko Nisma elkarreko kidea da. Urtebete baino gutxiago da elkarte sortu zela, Kintanak dioskunez. *“Iaz ere ekarri genituen Saharako umeak hona, baina artean Udaletxea arduratzen zen horretaz. Gero, inailean, Nisma jaio zen”*. Halako bilakera izan da beste herri bazuetan ere: lehenbizi, udaletxeak dira Saharako umeen etorrera antolatzen dutenak, eta denbora bat igarota, ardura hartuko duten elkarteen sorrera bultzatzen da, udaletxeak dirulaguntza ematen ja-

rraitzen badu ere.

Nismaren kasua apur bat berezia da, Saharakoak ez eze, beste herrialde batzuetakoak ere ekartzen dituztelako. Hasierako helburu bakarra saharar umeak ziren, arabierazko izenak salatzen duenez; baina, norbaitek proposatuta, Errusia, Bielorrusia eta Txernobileko umeak ere ekarriko dituzte aurten. Guztira 25 haur, horietatik 10 Saharakoak.

Erandion ez dute arazorik eduki ume horiek guztiak hartzeko behar diren fami-

liak lortzeko, baina beste leku batzuetan bai. Leioan, esaterako, Fath elkarteak dabil lanean duela bost urtetik hona. Bertako kide baten berbetan, *“aurten bost edo sei ume etorriko dira, oso gutxi aurreko urteetakoarekin alderatuta”*. Informazioa oso aurretik ematen da: propaganda banatzen da postontzietan, dendetan kartelak ipini, eskoletan ere bai,... baina ez da nahikoa. *“Oso erosoak gara eta Saharako ume bat hartzea ez da ardura txikia, bi hilabetez eduki behar da-eta etxean”*.

Saharako umeak ekartzeko arrazoi nagusia euren sorterrian udan dauden tenperatura jasanezinak dira, Getxoko Atfal elkarteak Itxaso Fernándezek azaldu digunez: *“Bero handiegia egiten du, batzuetan 52 graduraino ailega daitekeena. Hemen umeak hobeto daude, elikadura hobea daukate, eta bide batez, gure kultura eta gure bizimodua ezagutzen dute”*.

Egokitze-prozesua

Fernándezek dioenez, saharar umeak oso azkar ohitzen dira hemengora, *“lehen 15 egunak egokitzeko izaten dira, baina gero primeran moldatzen dira, eta gainera oso arin ikasten dute hizkuntza”*. Hasieran, hala ere, zailtasunak dauzkate gurean oso arruntak diren hainbat gauza ulertzeko: ura txorrotetik irtetea, argia pizteko botoiak egotea, etxean nork bere gela edukitea... Dena dela, alde onek txarrak gain-

“Saharako bero jasangaitza da umeak gurera ekartzeko arrazoi nagusia”

ditzen dituztela dio Fernándezek. Horren froga, umeak hartzen dituzten familia gehienek ondorengo urteetan errepikatu egiten dutela da.

Parte hartuko duten familia berriak lortzean dago zailtasuna, edo aurten egon da, behintzat. Getxoko kasua esanguratua da, sei ume baino ez baitituzte ekarriko aurten, inoiz baino gutxiago.

Gorlizen ere antzera dabilta. Udala arduratzen da umeen harreraz (laster elkarteak sortzeko asmoa daukate), eta hau idazten gabiltzanean familia biren bila dabilta oraindik, guztira eskatu dituzten bost umeak hartu ahal izateko. Berangokoa larriagoa da: hainbat urtean ekimean parte hartu eta gero, aurten ez da familiarik aurkeztu. Elkarte bat eratzeke saioak antzuak suertatu dira, eta urtarriletik Udaletxeak plazaratutako deialdiek ere ez dute erantzunik jaso. ^m



Argazkiak: Mikel Martínez

Nazio baten bila borrokan

“Sahara, lehen, leku batetik bestera zebiltzan leinuen herrialdea zen. Asko ahalegindu ziren lur hura menderatzen: britainiarrak, frantziarrak, portugaldarrak... Baina ez zuten lortu, erresistentzia handiagaz egin zutelako topo”. Hala berba egiten duena Brahim Ahmed da, Polisariok Gasteizen daukan ordezkarietako bat. Berarengana jo dugu Sahararen historiari eta gaurko egoeraz zeozer jakiteko asmoz.

“1884an espainiarrak sartu ziren”, kontatzen du Ahmedek, *“Kanariar Uharteak 100 kilometrora daude, eta haien zatia erraza izan zen. Merkataritzaren aitzakiagaz sartu ziren, eta hemengo beduinoek, gauzak behar zituztela eta, ondo hartu zuten hori”*. Hala hasi zen 1975era arte iraun zuen okupazio baten historia. Urte hartan, Espainiak bitan zatitu zuen Sahararen lurraldea, iparraldekoa Marokori eta hegoaldekoa Mauritaniari emanda. Ordurako, baina, Polisario taldea sortuta zegoen, eta hark ekin zion Sahararen askatasunaren aldeko borrokari. Arin lortu zuten Mauritaniak bere zatia uko egitea, 1979an bertako hiriburuan egindako operazio militar bati esker, eta harrezkeroztik independentea da Sahararen alde hori. Marokoren kontrako lehiak, ordea, ez zuen horren berehalako emaitzik sortu. Duela hamabi urte, marokoarrek erreferenduma bat egitea onartu zuten, baina *“oraindik ez da egin erreferenduma hori, mila modutara lortu baitute atzeratzea”*, dio Ahmedek. Gaia hizpide izan da sarritan Nazio Batuetako Segurtasun Batzordean.

Marokoren okupazioak errefuxiatu oldea eragin zuen: den-denak Algerian kokatu dira, Tinduf hiriaren inguruan, handik 40ren bat kilometrora dauden lau kanpamentuetan. Horkoak dira, hain zuen, urtero oporretan datozkigun umeak, Polisariok urtero bultzatzen duen *“Oporrak Pakean”* kanpainari esker. Ustez, 315.000 lagun bizi dira Tindufen, *“zenbaketa zehatzik egin ez den arren”*.

San Juan gau beroa diogunean, ez diogu bakarrik piztu ziren suteengatik, baita giroagatik ere. Arrigunagan egin zen skater jaiaz diogu hori; egiaren mesederako, gaua ez eze eguna ere beroa eta luzea izan zela aitortu behar dugu. Egurdiko hamabietatik, han hasi ziren elkartzen Getxoko eta inguruetako skaterrak, musikak, janariak eta edariak lagunduta. Ez zen iragarritako guztia bete, baina horrek ez zuen ondo pasatzeko gogorik murriztu, guk geure begiz ikusi genuenez.

San Juan gau beroa

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Munduko skate txapelduna etorriko zela zegoen iragarrita, eta halaxe esanda geneukan guk ere orrialde hauetan, baina azkenean (ez dugu jakiterik izan zer konpromiso mota eduki zuen gizonak) ez zen bertara agertu. Berdin dio, skatean ibiliko zenik ez zen falta izan eta. Baina has gaitzen hasieratik.

«Nor bere trebezia erakusten ahalegindu zen Arrigunagako poolean»

Egurdiko hamabietan zen hastekoa jaia, eta hala izan zen ofizialki. Hala ere, benetako jaia geroago etorri zen, hasiera-ko orduan Arrigunagara hurbildu ziren apurrak artean hotz baitzebiltzan. Astelehen goiza astelehen goiza da, eta lan-merkatuaren lege zorrotzek gutxi dakite San Juan jaiez.

Orduak aurrera joan ahala, ordea, gero eta lagun gehiago hasi zen bertaraten, gehienak irristatzeko ohola aldean zekartzatela. Musika lagun (era guztietakoa ibili zen egun osoan megafoniatik, txandak ondo errespetatuz, hori bai), nor bere trebezia erakusten ahalegindu zen Arrigunagako pool-ean.

Presio barik
“*Hau ez da lehiaketa, hau jaia da eta ez dago beste batzuetan egoten den presiorik*”, esan zigun Txus Domínguezek, jaiaren antolatzaileetako batek. Igartzen zen, bai, presio falta, inor ez baitzen lotsatu oholaren gainean egiten zekiena agerian uzteko orduan.

Munduko txapelduna (parkatu, ez dakigu izena) etortzeke zen oraindik, eta inork ez zekien noiz zen agertzeko, ez zeukan-eta ordu zehatzik hitz emanda. Arratsaldeko seietarako, ordea, jakina zen haren abilitade izugarriaz gozatzeko aukerarik ez zela egongo, baina ordurako bost axola skate parkea betetzen zutenei. Munduko txapeldunak ez bagara ere, Uribe Kostakook ez gara makalak, pentsatuko zuten askok, eta horra abiatu ziren, pool barrenera, jauzi eta jirarik ikusgarrienaren bila.

Asko ziren poolaren ertzean, ohola oin azpian eta txandaren zain zeudenak, eta askoz gehiago parkeko harmailak guztiz estaltzen zituzten ikusleak. Skatea bizitzan den-dena ez delako, han bertan paratutako behin-behineko txosna batean odolostea, txorizoa, garagardoa eta bestelako jateko eta edatekoak banatzen ziharduten batzuek.





[kronika]

Halako batean, garabi handi bat paratu zuten poolaren alboan. Hara igo ziren argazkilari batzuk, eta handik, pool-aren gain-gainetik, hartu zituzten hainbat irudi ikusgarri, UK honetako azalean ikus dezakezuen esate baterako.

Kostata ailegatu zen gaua, urteko egunik luzeenean normala denez, baina ailegatu zen hala eta guzti ere, eta haregaz batera aldezturik inguruko belardietan prestatuta zeuden metei sua pizteko tenorea ere bai. Ikuskizunaren suak berotuta, nonbait, askok ohola hartu eta jo eta fuego (zela bestela?) hasi ziren skatean. Ez ordu luzeetako ariketak, ez eta orduantxe hasi ziren kontzertuek ere, ez zieten irristatzeko grina kendu, antza. Are gehiago, bat baino gehiago momentu hartan agertu zen ausarten, askoren odola ere nahiko berotuta zegoen-eta ordurako. Jaia beti jai.

«Gauak ez zituen skatean ibiltzeko gogoak amata»

San Juaneko ospakizun bereziak iraun zuen hamabitik gora ordu horiek ikuskitzen itzel politaz gozatzeko izan ziren, edo hala iruditzen zitzaion behintzat skateaz ezer gutxi dakien kazetari honi. Zeozer desberdin eta eder egiteko ahalegin zenbaezinak, ustelak asko, arrakastatsuak ugari, eta kolperen bat ere egon zen. Tartean, han zebiltzan “pro” batzuk ere (skatean ibiltzeagatik dirua jasotzen dutenak). Oro har, argi geratu zen Uribe Kostan kirol honetarako dagoen zaletasun itzela. Eta skaterako ez eze, San Juan bezperako gaua ospatzeko ere bai, duda barik. ^m

Irudi hauek guztiak, Arrigunagako La Kantera skateparkearen inguruan hartu genituen ekainaren 23an, San Juan egunaren bezperan.



zineeskola

Oskar Fernández

Hollywood
gezurretako lantegia (I)

Zinema eta batez ere Ameriketako Estatu Batuetan sortutako filmek mitoak, gezur galantak eta gizakiaren historia alderantziz kontaturik pantailetara askotan eraman dituzte interes ilun eta izkututako potere indartsua babesteko eta bultzatzeko. Zinema gaur egun ezagutzen dugun moduan, zalantzarik gabe, Europan jaio zen, zehatz mehatz Frantzian. Baina, handik hilabete gutxi barru Atlantiar Ozeanoa zeharkatuz Ameriketako Estatu Batuetara heldu zen, eta han Edison zinemagintza menperatuko lukeenak jendearengan eragin gehien egiten duena ere menperatuko lukelaz konturatu zen berehala. Baina nor zen Thomas Alva Edison (1847 1931). Hiztegiek eta batez ere zinemak zientzi gizon haundi bat izan zela aldarrikatu dute: Ameriketako asmatzaile ospetsu, gizon ekintzaile eta gauza guztien gainetik eredu nabarmen bat Ameriketako guztiontzako. Hainbat gauzen artean Edisonek kinetoskopiaa asmatu zuen. Aparatu honek zeluloidezko zinta zulaturik labur bat zeraman. Fotogramak argia eta bisore baten artean pasatzen ziren. Jendeak banan banan eszena oso txikiak ikusten zituen. Edisonek Lumière anaiek asmatutako proiektzioaz ez zuen sinisten eta ez zuen pentsa ekonomikoki interes haundirik zuenik. Baina, Félix Mesguichek, Ameriketako Estatu Batuetara Lumière anaiek bidalitako operadorea, zer erratuta zegoen, Edison, baieztatu zuen. Félixen proiektzioek music hall-etan arrakasta itzela lortu zuten. Jendeak Marsellesa abestearekin batera Lumière anaiak goraipatzen zituen. Edison berehala Lumière anaiek asmatutakoa berarena baino etorkizun gehiago izango zuela konturatu zen, eta hemetik aurrera guda bortitza eta lazgarri hasi zen bere interes monopolista eta berekoia legea eta jendearen eskubi-deenganetik aurrera eramateko. 4

Sorginaren trenea

Koldo Serra egilearen beldurrezko film labur berria
Getxo Antzokian estreinatu da



Koldo Serra, estreinaldiaren egunean

Ekainaren 18an, Koldo Serrak *El tren de la bruja* izenburuko film laburra estreinatu zuen Getxo Antzokian; orduan ikusteko aukerarik ez bazenute, jakin behar duzue bigarren emanaldia Algortako Biotz Alai plazan egongo dela uztailaren 7an, “La noche + corta” zikloaren barruan. Zuzendaria izateaz gain, Koldo Serrak beldurrezko film labur horren gidoa ere idatzi du, Nacho Vigalondorekin batera.

16 minutuko irapuena daukan *El tren de la bruja* Laudion filmatu zen iazko irailean. Fernando Velázquez algortarrak egina du soinu-banda, eta Euskadiko Gazte Orkestrak grabatua. Ikusleak aktore bi besterik ez ditu ikusiko pantailan: Manolo Solo protagonista eta Serraren lanetan askotan agertzen den Jon Ariño; bestalde, Héctor Alterio aktore argentinar ospetsuaren *off* ahotsak garrantzi handia dauka filmaren muinean. *El tren de la bruja* filmak bere burua erakunde zientifiko bati bi milioiren truke ematen dion pertsona baten istorioa azaltzen du; erakunde horrek gizakiaren portaera aztertu gura du ikarazko egoeretan. Orain Madrilen bizi bada ere, ia hogei urte eman ditu Koldo Serra gazteak Getxon bizitzen. Egile emankorra da bera: bost film labur zuzendu ditu (beheko laukian ikus ditzakezuenak), eta kartelak, komikiak, iragarkiak eta bideoklipak egitea zer den ere badaki. Gaur egun, Serra *Nuestra Señora de los Desamparados* film luzearen gidoia idazten dabil Jaleo Films ekoiztetxearekin. m

Koldo Serraren film laburrak

- **Sick of you** (1993)
- **La noche de autos** (1995)
- **Háchame!** (1996)
- **Amor de madre** (1998)
- **El tren de la bruja** (2003)

Ez galdu > **Kaos** (Colin Serreau)



Film honen bidez, Coline Serreau zinema zuzendari frantsesak Pariseko burgesiari buruzko kritika zorrotza, azkarra eta satirikoa egiten du. Emakume honek duela hogeita sei urte eman zituen bere lehenengo urratsak zinemagintzan, eta ordutik hona zortzi film eraman ditu pantailetara. Gure artean hauexek egin dira ezagunen: “Hiru ezkongabeak eta biberoi bat” eta “Ama, zure ohean gizon zuri bat dago”. Orain, “Kaos” izeneko filmaren bidez, gai interesgarri eta hunkigarria eraman du zeluloidera. Senar-emazte batzuek emakume galdu batek jasotzen duen jipoi basatiaren lekuko dira. Hark, beldurrak bultzaturik, kotxe barruan bilatuko du babesa. Emazteak (Catherine Frost), erukiz beterik, handik aurrera jipoitutako emakumeaz arduratzea beste helbururik ez du izango buruan. Rachida Brakni-k, emakume galduak, Cesar saria jaso zuen bere antzezlanagatik.

Taldea > Patada en la papada



Argazkian, taldeko kideak

Eskualdeko punk basatia

Nondik dator izena: “*Izena, berez, txundigarria da. Hala ere, gure lehen kontzertuak beste izen batzuekin jo genituen, hau topatu arte*”. **Noiz hasi ziren:** “*Taldea iaz osatu genuen eta maiatzean gure lehenengo kontzertua eman genuen. Getxoko jaietan izan zen eta txosnen parean jo genuen*”. **Taldeko kideak:** Aitor (abeslaria), Endika (bateria), Pinz (gitarra) eta Ibaitxu (baxua). **Gustukoa dute:** “*Punka gustatzen zaigu eta egiten dugun musikan islatzen da hori. Eurek “punk patateroa” egiten dutela diote. Eginiko diskoak:* Laster *Patada en la Papada*, euren lehen maketa, kaleratuko dute. Hamalau abesti grabatu

dituzte, Misfits taldearen bertsio bat hauen artean. Honez gain, Algortako gaztetxeak egingo duen talde lokalen bilduman ere hartuko dute parte. **Besteak beste, jo dute:** Getxoko jaietan, Sopelako jaietan “*hemen ere txosnen parean jo genuen*” , Portu Zaharreko jaietan, Trapagako gaztetxean, Txiberri tabernan, Santutxuko gaztetxean... **Euskal musikaren egoera:** “*Gaur egun musika gehigi etiketatzen da, eta askotan musikaz baino, musika etiketatzeaz arduratzen da jendea. Baina horrek guri bost, guk jotzen ondo pasatu baino ez dugu nahi*”. m **Harremanetarako: 94 403 80 37 (Endika)**

diskoak

Think tank
Blur
EMI

Brit pop-aren talderik esanguratsuenak arrakasta eman dion estiloa utzi egin du, eta soinu berriekin ausartu da bere zazpigarren diskoa egiteko, hamaika arazo konpondu ostean. Maroko eta Londres artean grabatutako lan honek 13 abesti ditu, eta ekoizpena Blur taldeak berak egin du, William Orbit eta Norman Cook ezagunak lagunduta.

Zuretzat
Koldo eta Arantxa
Irki-Elkar

Erromeria giroa itzalita ei dago eta hori suspertu nahian, Iparragirre anaia-arrebek disko formako ahalegintxoa egin dute. Trikitilari gazteok porru-salda, arin-arina, fandangoak eta rantxera giroko doinuak dituen lan berria plazaratu dute, 13 kantuk osatua: batzuk erromeria giroaren aldarrikatzaile, eta gainerakoak mai-tasunaren ingurukoak.

Lehenengo bolumena
Pin Pan Pun Band!
Oihuka

Sei abesti dituen disko honekin aurkeztu du bere burua Pin Pan Pun Band! taldeak. Etsaiak-eko abeslaria den Auok sortu du proiektu hau, eta Mexiko, Madril eta Euskal Herriko musikariak biltzen ditu. Hainbat estilo eta instrumentu batzen du lanak, perkusioari garrantzi berezia emanda.

esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Egunerokoa (III)
Zuhaitz eroriak

1986ko uztailaren 14a. Egun horretan jaio zen begi ameslariak –"zeru pusketa bi", aitari galdetuz gero– zituen neskatoa. Ez nuen bera ezagutzeko aukerarik izan, baina imajina dezaket bere haurtzaroa. Aitaren esku erraldoiei helduta lehendabiziko urratsak ematen; bera baino bi aldiz handiagoa zen amantala jarrita amari sukaldean laguntzen; lorategiko txokoren batean katu kumeak ezkutatzen, aitak haiek akabatuko dituen beldurrez; lotara joan aurretik, aitaitari aspaldiko kontuak entzuten... Berandu hasiko zen eskolan, herriko gainerako haurren antzera. Lehenik eta behin, etxean lagundu beharra baitago, eta ondoren etorriko dira etorri beharrekoak. Neska argia izango zen, dudarik ez dut horretaz, eta amak motxila ederra oparituko zion instituturako liburuak bertan sar zitzan. Memento honetan, udako oporrekin gozatzen ibiliko zen, duela hilabete batzuk bidean bonba hark harrapatu izan ez balu.

Ikastolako zazpigarren mailan, natura ematen zigan irakasleak galdera xelege bat egin zigan: inolako lekukorik gabe, basoaren erdian erortzen den zuhaitzak zaratarik egiten du? Baietz erantzun genion, lurra kolpatzerakoan zarata sortuko zuela. Eta berak ezetz, zeren nola jakin zaratarik egon den ala ez, inork ez badu hura entzun? Urteak pasa ditut galdera horri bueltak ematen, eta ez dut iritzia aldatu. Begi ameslaridun neskatoa bakarrik zegoen bide erdian bonba batekin topo egin zuenean, eta, hala ere, denok entzun genuen bere oihua. Agota Kristoffek berak, erbestetik, herrikideen oihuak entzun zitzakeen egunero. *Koaderno handia* da horren adibide. 4

Amezagaren berrienak

Getxon bizi den idazleak **Sabino Aranaren biografia** idatzi eta **Oteizaren lanak** bildu ditu

1921ean Bilbon jaioetako Elias Amezaga idazleak deabruarekin isilpeko hitzarmenen bat duela pentsarazten digu; izan ere, ia ete-nik gabe dihardu Euskal Herria hobeto eza-gutzen laguntzen diguten lan erraldoiak sortzen. Berrienak Txalaparta argitaletxeare-kin kaleratu ditu eta gaztelaniaz idatzita daude: alde batetik, *Biografia sentimental de Sabino Arana*, eta bestetik, Jorge Oteizaren *Ahora tengo que irme*.

Euskal abertzaletasunaren aitzindariaren heriotzaren mendeurrenean, Amezagak haren behin betiko biografia idatzi du; *Biografia sentimental de Sabino Arana* liburua-ren 320 orrialdeetan, politikariaren eta pert-sonaren alde biak uztartzen dira. Kontuan hartu behar da, gainera, Aranaren biografo-etako bat bihurtu zela Elias Amezaga aspal-dian, eta haren obra berreskuratu zuela.

Bestalde, Getxoko dorre-etxe batean bizi den idazle bilbotarra Jorge Oteiza eskultore eta pentsalari bikainaren *Ahora tengo que irme* liburuaren edizioaz ere arduratu da; poesia, prosa, gutunak, idazkiak eta antzekoak aurki daitezke bertan, eta gehienak ez dira orain arte argitaratu. Oteiza zenaren lan hau aukera ede-rra da Orioko sortzailea bera, bere lana eta pentsaera ezagutzeko.

Gaur egun, Elias Amezaga oparoa kola-



Elias Amezaga idazlea

boratzaile da Euskal Herriko zenbait egun-karitan. Idazten ez dagoenean, Madril, Paris Amsterdam, Bagancy, Coimbra, Salamanca eta Simancasko artxibo, liburutegi eta he-merroteketan ibili ohi da, bere lanetarako datuen bila.

Orain prestatzen diharduen liburua ere, Jose Antonio Agirre lehen lehendakariaren gainekoa, laster argitaratuko du. m

liburuak



Hamar urte barru
Joxe Belmonte
Erein

Lau mutil gazte agertzen dira 1973an egindako argazki batean; hamar urte-ren buruan berriro elkartuko direla agindu diote elkarri. Eleberri honek Erein-Euskadiko Kutxa Narratiba Saria jaso du aurtan.



Eguzkipekoak
Pablo Sastre
Alberdania

Madrilen jaio zen idazlearen bederitzagarren liburu hau irakurgai bilduma bat baino gehiago da. Gu denon bizit-zaren parte diren hurkoen bizitzaz osatua dago. Sastre-ren lagunak dira, libu-ruak irakurriz egin dituenak.

Iñigito Txapelpunk > musikaria

“Kalean ikusten dodazan gauzetaz idazten dot”



“Diskoagaz urtebete egon naz buru-belarri, lo gitxi egiten, ametsetan ere konposatzen”

Iñigo Arrasate da 32 urteko lekeitiar peto honen benetako izena. Oso gazte hasi zen musikan, eta Askatu taldetik igaro ostean Etsaiak-en eman zuen urte ugari. Taldea utzi barik, bere proiektuak gauzatzen hasi zen; Iñigito Txapelpunk izenpean emandako lehen kontzertuan, berak bakarrik jo zituen tresna guztiak. Orain, talde on baten laguntzaz, disko bi ditu kalean dagoeneko: Txapelpunk eta Bla, bla, bla, bla, bla. Stop.

—Nondik dator Txapelpunk goitizena?
—Hemengo neure kolegek, pilo bat urte-tik, beti deitu nabe txapeldun. Gero neure gustu musikallengatik, -dun -punk bihurtu zen. Grazia egin eusten Txa-pelpunk horrek, eta atara genduan lehe-nengo diskoa horretxeaz izenaz atara gen-duan.
—Zelan bururatu zitzaizun, Etsaiak-en egonda, beste proiektu bategaz hastea?
—Urteak egon nintzen Etsaiak-entzako konponitzen, eta beti ataraten neban

abestiren bat edo beste, igual Etsaiak-en lekurik ez eukena. Gitxi-gitxika jon nint-zen abestien zatiak eta abar biltzen, eta ikusi neban eskuetan neukana kanta dezente zirela, disko bat grabatzeko mo-duan. Holan atara genduan lehen diskoa. Bitartean hor zegoen Etsaiak be bai, eta nahiko ondo eroten neban talde bietan batera egotea. Hori bai, lo gitxi eginda, sasoi batean zoro ibili nintzen, bietarako konposatzen, kontzertuak jotzen...
—Gogoia zeneukan Etsaiak-etik kanpo

zeozer egiteko?

—Bai. Gero, bigarren diskoagaz urtebete egon naz buru-belarri, lo gitxi egiten, ametsetan ere konponitzen. Konponitzen hasten naizenean, amets eta guzti egiten dot. Esnatzen naz eta melodia bat dekot buruan. Eta egun osoa libreta bategaz aldean. Entziklopedia bat idatzi dut kasik. —Estilo aldaketa handia da batetik bes-tera, ezta?


«Gure erreperitorioan
estilo entsalada dago»

—Kanta batzuk antzekoak dira, baina bai, diferentea da. Auok, Etsaiak-eko abeslariak, badeko abesteko modu bere-zia, berarena, eta neuk beste gauza bat dekot guztiz diferentea. Txapelpunkeko diskoetan ska, reggae, punk-rock... da-goz. Egia esan, ni estiloe-kin galdu egiten naz, estilo pilo bat dago. Punketik sortu ei da hardcorea, gero hardcore melodikoa... Denak dira ibai bereko isurkide desberdi-nak. Esango neuke Txapelpunken erre-peritorioan estilo entsalada bat dagoela.
—Kanpotik ikusita behintzat, harritu egiten du letrak euskaraz eta erdaraz izatea...

—Nik bietan egiten dodaz letrak ze, bizit-zan, kalean, euskeraz eta erderaz egiten dot. Erraztasun gehiago dekot erdaraz egiteko letrak, baina gustako jaten euske-raz gehiago egitea bizitzan, kalean... eta hurrengoko diskoan abesti gehiago sart-zea euskeraz.
—Eta zertaz dihardute letrak?
—Denetarik dago... Euskadiko selekzioa animatzetik, okupazioaren aldeko mez-u-ra, gay eta lesbianen aldekoetatik pasa-tuz... Gehienbat neure inguruan ikusten dodazan gauzetaz idazten dot. m

Gure espezieak >

Igela



- **Izen generikoa:** Rana temporaria
- **Izen arrunta:** Baso-igel gorria
- **Berezitasunak:** 10cm-ko luzera.
- **Bizilekua:** Errekak, basoak, ingurune hezeak, landa.

Baso-igel gorriak, kolore gorri iluna du bizkarraldean, tonu gris, berde-hori batzuekin batera. Hainbat orban ilun ditu gorputz osoan zehar, baina batez ere alboetan. Begi irtenak ditu, eta irisa urre kolorekoa. Arrak emeak baino txikiagoak dira eta birsorkuntza garaian maskur ilunak agertzen zaizkie hatzetan. Larbak edo apaburuak 46mm-ko luzera izatera heltzen dira eta kolore ilunekoak dira.

Ur edo hezetasunez aberats diren lekuetan (errekak, ingurune hezeak...) bizi ohi da; batez ere, leku basotsuetan. Landetan eta ingurune hezeetan ere aurki daiteke. Beraz, berau ikusteko, eskualdeko ingurune hezeak, zenbait baso nahasi eta sasitza batzuk dira egokienak. Baina oso espezie urria denez, ez da erraza hura ikustea, eta eragoztear ere ez da gomendagarria.

Lur ohiturak dituen eta uretara birsortzeko bakarrik hurbiltzen den espeziea da. Birsorketa garaia neguan izaten du, eta orduan, bai ar eta bai

«Igelak zortzi urte bete arte bizi daitezke»

emeek lekualdaketa egiten dute inguru urtsuetara joateko, baina ur-korronterik gabeko tokiak aukeratzen dituzte, beti ere. Arra emearen galtzarbera lotuta geratzen da, 900 eta 4.000 arrautz bitartean jarri arte. Bizirik jarraitzen duten apaburuak 3 urteren buruan lortzen dute sexu heldutasuna eta 8 urte bete arte bizi daitezke. Elikadurari dagokionez, araknidoak, koleopteroak, dipteroak, miriapodoak, moluskuak, lur-zizareak eta abar jaten ditu.

Gaia > Suteak

Udako gaitza

Uribe Kosta ez da suteek bereziki zigortutako ingurua, bertako klimari esker batez ere

Urtero, udako hileak etorten direnean, komunikabideek mundu osoan pizten diren sute handien berri ematen digute. Lurralde lehorretan gertatzen da hori batez ere; gure inguruan, ostera, hezetasunari esker, arazoa ez da larria izaten. José Mari Bilbao, Leioako suhiltzaile parkeko sarjentuak esan digunez, *“udan, jeneralean, ez dago sute askorik hemengo mendi eta basoetan. Gehiago egoten dira urria aldean, giroa lehortzen duen hego haizeagatik”*.

Uribe Kostan, uda batean, dozena erdi sute handi izaten dira gutxi gora-behera, Bilbaoren esanetan. Hala ere, *“ezin da kopuru zehatz bat eman, ez delako kalkulerik egiten horren inguruan eta gainera urtero desberdina izaten delako”*. Suhiltzaileen sarjentuak dioskunez, urte batean erretzen den eremua hurrengo urtean ez da erretzen jeneralean, *“hildako landaredia desagertu egin delako aurreko sutearen ondorioz”*.

Jende asko joaten den lekuetan sute

gehiago egoten da. Izan ere, suteen %99 gizakiak eraginak direla dio José Mari Bilbaok, *“nahita edo kontuz ez ibiltzeagatik”*. Uribe Kostan, Galeako eta Unbeko inguruak zigortzen ditu gehien suak, bisitari gehien ere horiexek jasotzen dituzte eta. ^m



Uribe Kostan, Galeako eta Unbeko inguruek jasoten dute sarrien suaren erasoa

Sasoia da > eltxoak



Egun sargoritsuak izan ditugu ekainean. Uda ere berdin datorrela esaten dute adituek. Eta beroa handitzearekin batera, eltxoen ziztadak jasotzeko arriskua ere handitzen da. Bada, beroak eltxoak dakartza urteko sasoi honetan. Dipteroen familiakoak dira intsektu hauek. Negua igaro ostean, udaberria heldu eta emeek arrautzak jartzen dituzte. Baina arrautza horiek sor daitezen, emeek odolaz elikatu beharra dute. Eta gu gara, sarritan, elikagai hori eskaintzen diegunak. Euren elika-iturria aukeratzeko, eltxoek lehenik usaimena erabiltzen omen dute. Arnasaldi bakoitzean sortzen dugun karbono dioxidoa eta beste substantzia usaintsu batzuk isurtzen ditugu airera, eta gure lagun txikiek erraz harrapatzen omen dute elikagaiaren seinale horri. Usaimena ezezik, bista ere erabiltzen dute, bai eta horrekin batera, gorputzen berotasuna somatzeko gaitasuna.


Txangoa > Paris

Asteburu perfektoa



Testua eta argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray**

Gure alboko herrialdearen hiriburua ezer bada, kosmopolita dela esan behar da. Gainera, historia, kultura eta emozioz betea. Sena ibaiak zeharkatzen du Paris eta mundu guztian ospetsuak diren hainbat altxor biltzen ditu bere baitan: Eiffel dorrea, 1899an altxatua, 300 metro gora dagoen bere tontorretik hiri osoa goza daiteke; Notre Dame katedrala, Paris erdiko Cité irlan dagoena; Louvre museoa, erdi aroko gaztelu baten aztarnen gainean eraikia; Mouline Rouge eta Sacre Coeur, Montmartre auzoan biak; Pongpidou kulturegunea, bere barru guztiak (eskilarak, elektrizitate kableak, urhodiak...) ibiltariari erakusten dizkiona; Sainte Chapelle eliza



txiki baina ikusgarria... Hau guztia eta askoz ere gehiago da Paris. Bere kaleetatik paseatzea, Europako hiririk modernoenatakoa eta aldi berean, zaharrenetakoa ikustea da. Leku paregabea da asteburu bat bertan emateko, edo astebete osoa. Astia izanez gero, hilabete osoa labor geratuko zaizu. ^m

«Hiriak mundu osoan ezagunak diren makina bat altxor biltzen ditu»

Zelan heldu hara

- Euskal Herritik 1.000 kilometrorra dago Paris. Autoz, autopista hartuta zortzi orduan para gaitzekke han. Hala ere, hegazkinez joateko eskaintza zabala dago, eta aukera hau egokiagoa izaten da.



Mendi kirolak >

Espeleologia

- **Non:** Baltzola, Gorbeia, e.a.
- **Noiz:** Urte osoan.
- **Materiala:** kaskoa, arnesa, eskalatzeko materiala, sokak eta karburo-argia.

Leizeak miatu eta aztertzeari deitzen zaio espeleologia, eta jarduera zientifikoa dugu, XIX. mendeko amaieran Frantzian sortua. Urte gutxiren buruan Europa osoan zabaldu zen, eta honela, haitzuloak geologo, biologo, arkeologo eta abarren ikerketa-gune bihurtu ziren.

Baina zirrara handia sortzen duen kirola ere bada; izan ere, espeleologoa haitzuloek eskaintzen dituzten mundu ezezagunetan barna abiatzen da. Haitzulo horizontalak, leize bertikal sakonak, barrunbe zabalak eta sistema labirintikoak: horiek guztiek eta gehiagok osatzen dituzte lurpeko pasabideak; eta leizearen ezaugarrien arabera, gaitzagoa edo errazagoa izango da bertatik ibiltzea. Jarduera honek prestakuntza fisikoa eskatzen du, baina are gehiago prestakuntza mentala. Espazioaren eta

«Espeleologoa haitzuloek eskaintzen dituzten mundu ezezagunetan barna abiatzen da»

denboraren erreferentziak galtzen diren leku batean isolatuta egotea, eta askotan irteeratik urrin zaudela jakitea, zama psikiko handia izan daiteke, horretarako trebatuta egon ezean. Zailtasun handiko esplorazio batean ezinbestekoak dira bai norberaren ziurtasuna eta bai talde lana.

Haitzuloak hotzak eta ilunak dira, eta lokatza, putzuak, arrastaka joatera behartzen duten barrunbe estuak eta beste hainbat zailtasun aurki daitezke. Horiei aurre egiteko, ezinbestekoa da material egokia eramatea, besteak beste, babesteko arropa, kaskoa, argia, eta kautxuzko zolak dituzten botak. Horrez gain, jaitsiera bertikalak egiteko, sokak, arnesak eta igotzeko eta jaisteko tresnak behar dira. Halaber, ezin ahaztu ordezko argia, jakiak, txilibitua eta botikina ere. Ura dagoen lekuetan, berriz, neopreno jantzi isotermikoak izaten dira egokienak.



Gogoa>
Lotsa

Nagore Etxebarri psikologoa

Lotsa, batez ere, gertatzear dagoenarekiko beldur antzekoa da; subjetuak uste du egoera jakin baten aurrean gainerakoek txartzat hartuko dutela beraren jokamoldea. Beraz, bere buruaz oso ziur ez dagoen pertsona batez ari gara. Gainera, pertsona horrek bere burua epaitzeko orduan oso zorrotza izateko joera du, eta besteen itxaropenak bete nahi izaten ditu beti.

Baina ezaugarri horiek ez ditu berak aukeratu; berezkoak ditu, batez ere jasotako heziketak baldintzatuta. Horren aurrean, zaila bada ere, lotsatiak jakin egin behar du bakoitzak baduela nahikoa bere bizitzarekin, eta jendeak ez duela denbora gehiegi ematen besteak baloratzen (batez ere eguneroko ekintza arruntetan). Jabetu egin behar du “zer pentsatuko duten nitaz” hori bere baitan baino ez dagoela, besteak epaitzeko duen joeratik abiatuta. 4



Gorputza > eguzkia eta zure azala
Jakín behar dena

Nerea Landa dermatologoa

Antzina, eguzkiak emandako kolorea osasun ikurtzat hartzen zen. Gaur egun hobeto ezagutzen ditugu eguzkia gehiegi hartzearen ondorio kaltegarriak, eta badakigu brontzea-tua horien aurreko defentsa dela, eta beraz, kalte bat dagoen seinale. Eguzkiaren hainbat izpik zimurrak, orban ilunak eta azaleko min-bizia eragin ditzakete. Solariumetako izpiek ere zahartzea eta azaleko minbizia sor dezake-te. Eguzkia kaltegarriagoa da eguerdiz (11 eta-tik 4etara) eta udan.

Hortaz, denok dugu eguzkiaren izpietatik babestu beharra, umetatik hasita. Haurtzar- roan eguzkitik babestea oso garrantzitsua da helduak izatean azaleko minbizirik ez eduki-teko. Eguzkiak sei hilabetetik beherako umeak zuzenean jotzea eragotzi behar da, haurrak gerizpetan edukita. Gainera, jantziz, kapeluz eta guardasolaz babestu behar ditugu. Sei hilabete daukatenetik aurrera, 30 edo zen-baki altuago bateko babes-ukendua eman behar zaie, baina hala eta guzti ere ez dute eguzkipean ordu larregi egon behar, uken-duok ez dute-eta erabateko babes-a ematen.

Aholku batzuk

Eguzkia hartu baino 20 minutu lehenago eman ukendua, eta asko eman. Berriro eman

«Eguzkia hartu aurretik, 30 edo zenbaki handiagoko babes-ukendua erabili behar da, baita egun lainotsuetan ere»

bizpahiru orduan behin, bainu hartu ostean edota izerdi asko botatzen baduzu. Egun lai-notsuetan ere erabili, ezpainak eta belarriak ahaztu barik.

Beha ezazu sarri zeure azala. Galdetu medikuari lehenbailehen zure orin batek tamaina, itxura edota kolorea azkar aldat-zen baditu, odola badario edo azkurea ematen badu. m



Eguzki-betaurrekoak erosteko orduan itxura eta babesa uztartzea komeni da

Eguzkitako betaurrekoak
Begiak ondo babestuta
Eguzkiari beldur barik begiratzeko antiojoek baldintza batzuk bete behar dituzte

Lehenengo *Reservoir dogs* filmaren per-sonaiek, eta gero *Caiga Quien Caiga* saioaren erreportariak punta-puntako osa-garri bihurtu zituzten eguzkitako be-taurreko beltzak. Horiek diseinu klasi-kokoak dira, baina badira bestelakoak ere: arinak, deigarriak eta kirol-diseinu-koak. Dena dela, kanpoko itxurari ge-hiegizko garrantzirik ez zaio emon be-har, eguzki-betaurrekoek begien osasu-nean eragin handia daukate-eta.

«Ultramore eta infragorri izpi kaltegarrien aurka babesten gaituzte»

Eguraldi ona dagoenean erabili ohi ditugu antiojo mota horiek, eguzkiaren printzak bete-betean erortzen direnean, alegia. Zenbait baldintza bete behar di-tuzte: ultramore izpien aurrean erabate-ko babes egokia eta iraunkorra, eta be-

giak eta inguruak ongi estaltzea; gaine-ra, kontuan hartu beharrekoa da leia-rrek ez dituztela formak eta koloreak aldatu behar, ez eta materialek alergiarik sortarazi. Eguzkitako betaurrekoak plas-tikozkoak edota metal-aleaziozkoak izan daitezke; azken hauek izaten dute narritadurak eragiteko joera, bai azalean bai begian.

Betaurreko horiek ezkutuak bezala-koak dira, izpi kaltegarrien aurrean ba-besten gaituzte-eta. Ultramoreek –aza-leko minbiziaz gain– begi-lausoak eta erretinako kalteak sortarazten dituzte; eta infragorriek, berriz, begiaren lehor-tasuna lentillak edo hezetasun gutxi dauzkaten pertsonengan. Azkenik, eguzkitako betaurreko onak optikan bakarrik aurki daitezke, han (eta ez beste inon) daudelako osagarri horien kalitatea zaintzen duten adituak. m

I
I aki
Bitxitegia
Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte T: 4302345
Algorta

A
Arasa
Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa
SARRIKOBASO
SUKALDEETAN ADITUAK GARA
Sarrikobaso, 44 • Tel/Fax: 94 430 11 91 • 48990 Algorta

Errotalde
ileapaindegia
HARTU TXANDA TELEFONOZ!!
T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO
GIZONENTZA -
KO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA
HARTU TXANDA

Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com
EGINKOR
INMOBILIARIA

zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
deitu: 94 491 13 37

Jose Unzurrunzaga Astigarraga
HORTZ?KLINIKA
Tel. & Faxes: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezkerra
ALGORTA

Gonzalo Iribarnegaray
idazle eta bidaiari getxotarraren eskutik

“Un mes en Bostwana”

Eskatu zure liburudendan!

BILBO MICRO

“1982az geroztik
soluzio
informatikoak
eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

[sarean]

Berria berri

Euskara hutsezko laugarren egunkariaren webgunea sarean dago dagoeneko

Euskaldunon Egunkariak bederatzi urte eman zituen paperean argitaratutako lehenengo alea kaleratu zenetik bertsio elektronikoa ziberespazioan murgildu arte. Berria-n, berriz, paperezko edizioa eta Internetekoa aldi berean agertu dira.

Berria.info webguneak diseinu eroso-a, argia eta erabilgarria du, Egunkariarena baino modernoagoa. Gainera, nabigatzaile guztiekin ederto ikus daiteke, estandarrak ondo gordetzen dituelako (beste egunkariak ez bezala).

Erabiltzaileak, ohiko egunkaria ez ezik, egunean zehar gertatutako berriak, ingelesezko edizioa eta zenbait inkestatan parte hartzeko aukera aurkituko ditu.

Gainera, oso erabilgarria suerta daite-

webgida

ZEREN BILA ZABILTZALA?
>www.quebuscasque.com

Gehienetan, webgune bat topatzeko bilatzaile batera jotzen dugu. Gauza da, webgune horren egileak jakin dezakeela zuk bilatzaileari bertara ailegatzeko zer galdetu diozun. Eta askotan, bilatutakoak eta aurkitutakoak ez dute zerikusi handirik. ‘Quebuscasque’ webgunean bilaketa benetan bitxi eta jostariak batu dituzte, denon algararako. Merezi du bisitatzea!

ANONYMIZER.COM
> www.anonymizer.com


Galarazitako edozein webgunetan sartzeko dohaineko sistema. Adibidez, nahiz eta zuk Telefonicarekin nabigatu, eta Telefonikak webgune hori oztopatu, modu anonimoan nabigatu ahal izango duzu



keen bilaketa sistema bati esker, gure intereseko berriak eta iritzi artikulua topa daitetze argitaratutako edozein zenbakiren barruan. Hori guztia, jaio berri denean. Zer emango digu hazten denean? m

Berria egunkariaren webgunea:
www.berria.info

Sarean aurkitu dugu > Informatika kontuak



Internet-en irudi harrigarriak edo barregarriak topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian argitaratuko ditugu hamabostean behin. ukaldizkaria@telefonica.net

Irratia > Euskal irratien bide malkartsuak

Euskal irratigintzaz liburua argitaratu zuen iaz **Arantza Gutiérrez** EHUKo irakasleak

Arantza Gutiérrez donostiarra da, baina Algortan bizi da. Lantokia ere hurbil dauka: irakaslea da EHUKo Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultatean. Horrez gain, UEUKo Kazetaritza Saileko ardura-duna ere bada. Udako unibertsitateak argitaratu zuen, hain zuzen, Gutiérrezrek idatzitako *Euskal Irratigintzaren Historia* libururua, iazko abenduan. Bertan, irratia zelan Euskal Herriratu zen azaltzen digu egileak, eta duela 80 urte sortu zenetik euskal irratigintzak bizi izandako hainbat gertaeraren berri ematen du.

80 urte horietako asko Francoren diktaduraren pean bizi izan ditugu Hego Euskal Herrian, eta horrek eduki du zer esanik, besteak beste, hizkuntzaren arloan. Horren harira, zera dio Gutiérrezrek: *“Euskal irratigintza, gaur egun ezagutzen dugun eran, 1957an hasi zen, baina euskara baze- goen irratian lehenagotik ere”*. Harrigarria eman badezake ere, frankismoak onartzen zuen euskara erabiltzea saio mota batzue- tan: *“Euskara erabil zitekeen, batetik, eban- gelizaziorako; eta bestetik, baserritarrentza- ko informazioa ematen zuten saioetan ere onartzen zen”*. Gainerako esparruak erdara



Argazkian, Arantza Gutiérrez

hutsaren gotorleku ziren, halabeharrez, eta horrek arazo bat baino gehiago sortu zuen orduko Gobernu Zibilakaz. Geroagoko arazoen artean, berriz, Arantza Gutiérrezrek euskarazko ereduen falta aipatu du. *“Irratian euskaraz ibili ziren lehenek, euren berezko lana ez ezik, erdanaz arruntak ziren esamoldeak euskaratzeko ardura eduki zuten”*. Duela hogeit urte ez zegoen hain argi zelan esan behar ziren “rueda de pren- sa” edo “saque de esquina”, esaterako. m

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

[komunikazioa]

Ikusi > Bertatik bertara

Iluntzeko bederatziak aldera, *“Euskal Telebistaren euskarazko magazine izarra”* hasten da; horrela idatzi zuen Espainiako egunkari batek. Ados egon zein ez, inork ezin dezake ukatu Andoni Aizpuruk aurkeztzen duen saioa ETBko beteranoena dela (*Goenkale* telesailaren ostean, noski); 1995eko irailan jaio zen eta aurten zortzi- garren denboraldia bete du. Ohiko albiste- gietan lekurik ez daukaten hurbileko gerta- kizunak jorratzen ditu *Bertatik bertara* saioak; hori da, hain zuzen, bere arrakas- taren gakoa: hurbiltasuna. Aspaldi ospatu zuten milagarren programa (2000ko azaro- aren 10ean, hain zuzen), baina horren aurretik “La candileja y el laurel de oro” izeneko saria jaso zuen, baita Rikardo Arregi Kazetaritza Saria ere.

***Bertatik bertara*, egunero, ETB1, 21.00**

Irakurri > Euskararen Berripapera

1992an Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak *Euskararen Berripaperaren* lehen zenbakia argitaratu zuen. Helburua hizkuntz politika gizarteratzea zen (eta da), eta horretan ibili da azken hamaika urteotan lau orrialdeko hilabatekari txikia. Euskalgintza eta euska- raren normalizazioa hartzen ditu hizpide *Euskararen Berripaperak*, “modu arin eta irakurterrezean”, Txetxu López de Sosoaga aldizkaritxoaren kudeatzaileak dioskunez. “Adituak ez diren herritarrek” irakurtzeko moduan eginda dago, eta dohainik banatzen da, harpidetzaz.

Harremanetarako: 945-01 81 16

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Koska Irratia	89.8
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
Bizkaia Irratia	102.6
Euskadi Irratia	104.4


ALBE alerik ale

Beti arte, Andoni

Andoni Iriondo > Agur eta ohore

Testua: ALBE

Buru argitasuna definituko bagenu, umore ona pertsonifikatuko bagenu, berezko euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna irudikatuko bagenitu, adorea eta ekimena erantsiko bagenizkio eta hori guztia adimen handiz jantzi eta bertsolari senez hornitu, Andoni Iriondo Barrenetxea zena ageriko litzaiguke, batere dudarik gabe, joan artean hainbeste poz eta une eder eman digun Andonirena, alegia. Zauden lekuan zaudela, beti geugaz izango zara, Andoni!



Natural sentitzen zuen egiten zuena, eta natural egin sentitzen zuena...



Nikaraguako umeak asko maite zituen Andonik



Parrandan ere beti animoso

«Mendia
maite zuen,
baita saltsa
ere»



Andoni, gailurrean apal, apaltasunaren gailur

ALBEko LAGUNAK

Andoniren omenez



Gaztearen adorea,
zaharraren umorea,
gizon jantzi dotorea,
pertsona ezin hobea;
bihotz xamurra begi argiak
eta arima noblea,
irrifarretan aberats eta
maltzurkerian pobrea.
Zure hazi zen gure herria,
zuk erein eta gordea,
orain kimutzen hasi denean
aldegin duzu, orde;
hala ere gudan ez da hilko zure
basamortuko lorea. (bir)

Xabier Paia

Andoni lagun bihotzekoa,
hau bai dala zoritxarra
bertso eskolaren sortzaileari
hil-bertsoa egin beharra!
Gure artean izetu zanez
konplizidade edarra,
etxaku inoz amatatuko
bihotz barruko sugarra
eta samina umorez janzen
izan zinanez izarra,
irripar zabal bihurtuko da
gure oraingo negarra.

Joseba Santxo

Zuk zeuk, Andoni, itzi zenduan
bertso hazia sartuta,
bertso kantuan hasi zintzezen
hiru lagun alkartuta,
eta oraintxe bertso eskola
dago honaino helduta,
euskal kultura jende artean
modu onez zabalduta,
orain herrian pozik gabiltza
zerorren uzta batuta.

Josu Landeta

Leku askotan ibili zara
jotake beti lanean,
bertsolaritza suspertu zendun
zuk Algortako aldean;
eskerrak emon behar deusdaz
gaztetxuen izenean,
zure lanari esker hor dabiz
bertsotan eta kantuan,
seguru egon beti eroango
zaitugula bihotzean.

Nahikari Ayo

Andoni lagun otzana,
gure ondotik joana,
beti heriotzaren zama
ulertzen gaitza izana...
Txiki-txikitan ezagutu ta
beti mirestu nebana,
gure herrian landatu eban
bertsoen hazi bakana
lore askodun fruitu bezala
iritxi da guregana,
eta gure gain hartuko dogu
berak espero ebana,
datozenentzat eginez berak
guretzat eindako lana. (bir)

Fredi Paia

Andoni joan egin zara-ta
hainbat samin ta dolore,
askok eduki zaitugulako
hemen eredu ta bide.
Beti euskara mingainean ta
beti herriaren alde,
bertso eskolaren labe
oinarri eta zutabe.
Galdu zaituzte bertso, euskara
eta Euskal Herriak ere;
adio, Andoni, bihotz-bihotzez,
zuri agur ta ohore.

Iñaki Benito del Valle

Andoniren azken agurra

Andoni Iriondo Barrenetxea Gipuzkoako Mendaron jaio zen 1926ko maiatzaren 9an eta lau neba-arrebako familian hirugarrena izan zen. Mendaron hazi zen, harik eta 1937an Gerra Zibilak lehenengo Frantziara eta ondoren Belgikara eraman zuen arte. Gerra amaituta, Euskal Herrira itzuli zen, lehenengo Mendarora, gero Bilbora eta ostean Getxora. Bilbon ingeniaritza ikasketak egin zituen. 1961ean ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituen. Gaztetarik bertsozalea izan zen eta gaur egun ALBEko lehendakaria genuen.

Testua eta argazkiak: **ALBE**

Nolakoa genuen? Alaia zen, ameslaria, langilea eta borrokalaria. Berak «euskalduna» esango luke, besterik gabe. Egia esan, alaia, ameslaria, borrokalaria, euskalduna eta beste hainbat gauza ere bazen: familia gizona, empresaria, euskararen bultzatzaila, unibertsitateko irakasle eta errektore-ordea, bertsolari eta bertsozalea, baina, batez ere, lagunaren lagun maitagarria.

Ingeniaritza Eskolan Isasi zuen, kalkulu erregelen, ahozko azterketen eta abarren garaian. Ikasteaz batera, Iberdueron (egungo Iberdrola) lanean hasi zen, eta ordutik bere lan jarduera energia elektrikoaren ingurukoa izan da. Hasi eta gutxira, familiarekin batera, babes erreleen enpresa sortu zuen (CEP). Maiz kontatzen zuen kontrabanduzko errelearen pasadizoa: «Ameriketatik ekarri omen zuten, lehenik itsasontziz, eta ondoren astoz Portugaldik, ondo aztertzeko». Lan eta ahalegin handia eginez, momentu onekin eta txarrekin, sendotu egin zen enpresari euskalduna. Ondoren, garai berriak etorri ziren eta horietara moldatu beharra egon zen. Hainbat enpresatan aritu zen. Andonik bere herrian punta-puntako enpresak garatzea zuen helburu nagusi.

Enpresako lanaz batera, Ingeniaritza Eskolako irakasle lana ere egin zuen. Barru-barruan zuen eskola. Ahal izan zue-netan, irakaskuntzan euskararen erabilera bultzatu zuen. Ikastolen mugimendutik hasita, Algortako Ikastolaren sorreran gero, dirua bilduz etxex etxe, bai eta irakasle euskaldunen bila ere, eskolarako eta unibertsitaterako.



Komunikatzaile eta animatzaile aparta zen Andoni, eta bera zegoen mahai bueltan giro izaten zen beti.

Irakasteko eta garapenerako grina horrek Nikaraguara eraman zuen, eta herrialde horrekiko adiskidetasun eta anai-tasun sentimendu sakona izan zuen. Bere bizitzaren azken urteetan aldi luzeak igaro zituen Nikaraguan, Trino bere adiskide mina lagun hartuta, eskolak ematen, enpresei laguntzen, eta bertakoekin bizi-tzen. Nikaraguako garapen ekonomikoa sustatzen ahalegindu zen. Gainera, ume nikaraguarrek seme-alabatzat hartzeko


programa ere antolatu zuen.

Andonik leku guztietan utzi zituen lagunak. Bera gogoan dugunean irribarrea loratzen zaigu. Proiekturen batean sartuta ikusten dugu, beti irribarretsu, elkarrizke-ta serio bat txistez eta pasadizoz zipritin-duz. Bestetik, Andoni bertsozale kualifika-tua genuen, bertsotan ibilia, txapelketetan epaile aritua eta Algortako Bertsolari Eskolaren sortzailea Trino Azkoitiarekin batera. Gainera, egun ALBEko lehendaka-

“Andoni bertsozale kualifikatua genuen, arloan asko ibilitakoa”



Txapel janzteak behin baino gehiagotan egin behar izan zituen eskolako ordezkari bezala. Beti prestu, lagunkoi eta adore-emaille.



Nagore (ezkerrean) eta Uxune (erdian) Andoniren alabak ere bertso eskolan ibilita daude.



Gazteen artean gustura, beti dotore, beti irribarretsu.



Bertso giroa non, hantxe ibiltzen zen gure Andoni, bere berezko umorea eta aldarte ona lau haizetara zabalduz.



Andoni eta Trino, Trino eta Andoni. Adiskidetasunaren, konplizidadearen eta elkartasunaren adibiderik onena.

“Umore inteligentea eta sentibera bere-bereak zituen Andonik”

ria zen eta gogo onez azaltzen zen eskolak eratutako edozein ekitalditan laguntzeko.

Bere izaeraren oinarria bere-berea zuen umore inteligente eta sentibera zen. Andonirekin hitz egitean, sarri agertzen ziren bere beste zaletasunak: mendia, perretxikoak eta gastronomia. Sekula ez dugu ahaztuko nola prestatzen zuen bakailaoa eta nola goraiatzatzen zuen urteko ardoa. Harentzako pertsona guztiak ziren bereziak, eta beti ezagutzen zuen

pertsona egokia, behar zen arlorako. Konfiantza izugarria zuen lagunengan, lankideengan eta ikasleengan.

Familian bere balioak errotu zituen: pertsonetikiko begirunea, Euskal Herriari zion maitasuna, lana eta zintzotasuna. Eta ibilitako bide guztietan aurrera egiteko oinarriak ezarri zituen.

Lerro hauetatik, eta ALBEko kide guztien izenean, hauxe esaten diogu: **BETI ARTE, ANDONI!**

BERTSOAGENDA

JAIALDI MUNDIALA

► **Uztailak 9 (asteazkena)**
Bihotz ALAI enparantzan, 22:00
Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Fredi Paia
Gaijartzaile: Aitzol de Kastro

GORLIZKO SAIOA

► **Uztailak 27 (igandea)**
Iberre-Barri plazan, 20:30
Andoni Egaña, Igor Elortza, Fredi Paia eta Miren Artetxe
Gaijartzaile: Miren Loizaga

ALGORTAKO SANINAZIOAK

► **Uztailak 30 (asteazkena)**
Kasinoko plazan, 13:00
Aitor Mendiluze, Jon Maia, Sustrai Kolina eta Xabier Paia
Gaijartzaile: Pello Unzurrunzaga

Bihotz ALAI plazan, 15:00
Erdi kanture bertso-paper emanaldia
Josu Landeta eta Roberto Etxebarria

► **Uztailak 31 (osteguna)**
Kasinoko plazan, 13:00
Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Amets Arzallus eta Fredi Paia
Gaijartzaile: Josu Esnaola

► **Abuztuak 1 (ostirala)**
Kasinoko plazan, 13:00
Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jesús Mari Irazu eta Xabier Silveira
Gaijartzaile: Arkaitz Gomez



Itxosora **begira**

Gure Akabuko Punte honetan agertzen dugun euskara batez ere baserri munduari lotuta egoten da. Bertoko euskaldunak baserrian bizi izan dira gehien bat, eta askotan baserria itxosotik sano paraje egon arren, euron bizimoduak ez du zerikusi handirik itxosoagaz, solo eta ganaduakaz baino. Baia oraingoan, itxosora begira imini gara eta horren gainean berba egingo dugu.

Testua: **Urtzi Iglesias** / Erretratua: **Asier Mentxaka**

Bertoko euskara, batez ere, baserri munduagaz lotuta dago; inguruko euskaldunak nekazaritzan aritu dira-eta, **itxosoa** paraje egon arren. Baia, Uribe Kosta itxosoari lotuta ere egon da eta oraindik ere badago. Hor ditugu Algorta edota Plentziako **portuk**, esate baterako. Oso ezberdina zen lehengoa, klaro, oraingoaren aldean; orain kirol portuk eta beste zaletasun batzuk daude.

Gure **kosta** itsaslabar handiz beteta dago, eta horien artean gure **plaiak** ditugu. Ude heldu da eta eguzkiak urteten duenean jende asko hurbiltzen da bertara. Toalla **area** gainean ipini eta han paratzen dira eguzkia eta bainuak hartzen. Baia beste batzuk, **txirlak** koisten, edo **hamarratzatan** (olagarrotan) joaten dira plaiara. **Atxarten** ibiltzen dira berton aurki daitezkeen animaliak koisten: **lapak**, **txirlak**, **ostrak**, **muxilloak**, **magurioak**, **nekorak**...

Hamarratzatan egiteko, adibidez, trapu zuri bat soka baten eskegita eroan ohi da. Trapu hori **kiñu** (amuzkia) da eta atxartetik eta **kuebatan** sartu behar da; amarratzak urteten duenean **gantxo** bota eta kolpe gogorra emon behar da amarratza ateratzeko, ostantzean, **atxatan** pegata



ta lotu daiteke **erroakaz** (erroak, amarratzaren besoak). Askotan, boltza bete hamarratza yoten dira etxera peskan egiten dutenak.

Karramarrotan, **kiskilletan**, eta abarretan ibiltzen direnak, ostera, **erretelegaz**

edo **sareagaz** egoten dira. Eta **arrainatan** ere jende asko ibiltzen da; urte osoan zehar arrantzale asko ikus daiteke, batez ere itxoso ondoko pasealekuetan, **kañu-beregaz**, **arrainan** bat koiu guran. ^m

«Itxosoa paraje egon arren, gure euskara baserri munduagaz lotuago dago»

TESTU HAU OSATZEKO, ANDONI LLOSAK BIZARRA LEPOAN ALDIZKARIKO 32. ZENBAKIAN ATARA ZUEN TESTUTIK ZENBAIT DATU HARTU DITUGU

Gurberbaker24

Esakera zahar batzuk

Testua: **Xabi Bilbao**

Orain dala aste batzuk R.M. Azkuen *Euskalerrriaren Yakintza* liburu aitetu gendun Akabuko Puntan. Liburuk dakarren ipuintxu bet ikusi gendun ordun: Martiñen estutasune, eta komenta egin genduzen horrek ipuintxuk dekozen alderdi jakingarri batzuk, esate baterako, zelan zenbakik direzen ipuin horren oiñarri. Gaur hemen ikusi egingo doguz Azkuek herrin ahotik batu euzen beste esate **batzuk** –esakera zahar batzuk– **oiñarrin zenbakik daukezenak**. Hor doaz:

- *Bat, bi, hiru, lau: txakurrak yango al dau.* (Dima)
- *Bat, Matxin Parrat; bi, Matxin eperdi; iru, kolko bete miru.* (Oleta)
- *Iru, korta bete miru.* (Gorliz)
- *Iru, kolko bete diru.* (Bizkai guztin)
- *Lau, sardiña makallau, katuak yango al au.* (Lekeitio)
- *Lau, goseak galdu dau.* (Zeanuri)
- *Bost, yo buruan ta kosk.* (Lekeitio)
- *Zazpi, altzo bete zapi.* (Murelaga)
- *Zortzi, otzara bete zorri.* (Murelaga)
- *Bederatzi, Amuruagako atsoari narrua eratsi.* (Murelaga)
- *Amar, gure katuak marmar.* (Bizkai guztin)
- *Amar, ik beti marmar.* (Gipuzkoa guztin)
- *Amaika, otzara bete lukainka.* (Lekeitio)
- *Amabi, altzo bete madari.* (Arratia)
- *Amabiak, gure lapikoaren agoniak.* (Zeanuri)
- *Amairu(r), ire buztana biur.* (Zaraitzu, GN)

Irakurle fiñe kargutuko zan lez, gaurko Berbakere honetan “badok hamairu”: *hamairu*-n ganeko esate bat sartu dogu, apur bet urruneko bada bere, polite dala eritxite. Ostera, Azkuen beharran sikan bere, “ez dokena” *sei* da (eta bederatzi bere, bat baino ez dator, nahiko motza ganera). Gotzon Garaten *27.173 Atsotitzak* (1998, BBK) bilduman, ostera, bai topa leitez *sei*-dun eta *bederatzi*-dun beste batzuk:

- *Sei, korta bete behi.*
- *Sei, korta bete sehi.*
- *Sei, plater bete zahi.*

- *Bederatzi, gure katueri narrua eratzi.*
- *Iru ta iru sei ta iru bederatzi, Oletako txakurrari dantz an erakutsi.*



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa
48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31
bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa
48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31
bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

[euskara]

Berria euskarazko egunkari berria kalean

Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta lau hilabetera, euskarazko egunkari berria kaleratu dute 2003ko ekainaren 21an. 50.000 ale bota zituzten lehenengo egun horretan, Euskal Herri osoan banatzeko.

Andoingo Martin Ugalde Parkean du egoitza nagusia *Berria*-k, eta ordezkaritzak

**«Martxelo Otamendi da
Berria egunkariako
zuzendaria»**

ditu Iruñean, Gasteizen, Barakaldon eta Baionan. Bertan, 140 langile arituko dira beharrian, horien artean 70 kazetari. Martxelo Otamendi du zuzendari, eta Jozean Lizarribar Administrazio-Kontseiluko lehendakari.

Astean sei egunez argitaratuko da, asteartetik igandera. Udan zehar, asteartero, *Hitzalean* gehigarria eskainiko du *Berria*-k. 16 orrialdetan, uda sasoiagaz lotutako elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak jorratuko ditu, eta hainbat sail berezi ere tartekatuko, hala nola mendia, musika, bidaiak, ikuskariak, liburuak, aisia, osasu-

na, sexua, moda, ingurumena, etxea, motorra, Internet eta gastronomia ingurukoak. Gainera, larunbatero *Mantangorri* umeentzako gehigarria eskainiko du, eta asteko azken egunean *Igandea* gehigarri informatiboa.



Argazkian, Martxelo Otamendi

Aldi berean, *Berria* egunkariak, Interneteko edizio jarraitua du www.berria.info helbidean. Bertan, argitaratutako egunkariako informazioaz gain, eguneko albisteak berritzen dituzte. m

UEUko udako ikastaroak heldu dira

Urtero legeaz, hemen dira honezkero Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaroak. Hiru txandatan banatuko dira aurtengo ikastaroak: lehenbizikoa, uztailaren 7tik 11ra, Biarritzeko Lycée hotelean izango da; bigarrena, uztailaren 15etik 19ra, Iruñeko Larraona ikastetxean, eta azkenik, UEUko Osasun Sailak antolatutako hidroterapia tailer berezi bat egongo da, Ondarroako Arrigorri Itsas Ostatuan, uztailaren 18tik 20ra. 30 urte baino gehiago daroaz UEUk udako ikastaroak eskaintzen, eta denbora gero eta egitarau zabalagoa eskaintzea lortu dute. Aurren, antzerkilaritza, nazioarteko harremanak, kazetaritza, musika, informatika, itzulpenegintza, literatura, natur zientziak, psikologia, sexologia, zinemagintza, antropologia, Euskal Herriko kultura, filosofia, fisika, kimika, historia, sukaldaritza, yoga, zuzenbidea eta osasuna jorratuko dituzte, besteak beste. / **Argibideak: 94 679 05 46**

Uribe Kostako Euskara Zebitzuak zure zerbitzura

Getxo: 94 491 14 41 • Leioa: 94 400 80 44 • Erandio: 94 489 01 40 • Berango: 94 668 00 08 • Gainerako herriak: 94 676 26 74



Euskaldunagoa?
Oso zaila dago.

Independenteagoa?
Ez da erraza.

Pluralagoa?
Zein bezain plurala?

Hobea?
Hoberena zen.

baina
hobetuko
dugu
zure laguntzarekin

berria berri

Akzioei buruzko informazioa:

www.ektsa.net

Tf: 635 733 385 · 635 733 386



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Entsaladilla errusiar erara

Hona hemen udarako errezeta aproposa: entsaladilla errusiar erara, bero handiko egunetan eskertzeko moduko jakia. Prestatzeko, sei patata eta zuritutako azenario bi egosiko ditugu lehenik, urari olioia eta gatza botaz. Patatak atera lehenik (lehenago egosten dira), eta azenarioak ondoren. Horren ostean, arrautza bi egosi; horretarako, ur hotza erabiliko dugu (berotuz joan dadila), hamar mintuz, nahikoa gatzagaz. Patatak, azenarioak eta arrautzak laukitxo txikitari zatitu eta dena nahastu, txikitutako azeitunak batera. Gero, txikitutako hegaluzea botako diogu nahasteari eta, gura izanez gero, piper gorriak. Gatz kopurua egokia dela baieztatu eta ospina bota, nahastu berriro eta maionesa bota. Bestelako osagaiak ere gehitu daiteke, norberaren gustuaren arabera: ganbak, esaterako. ^m

osagaiak (bi lagunentzat)

6 patata • 4 arrautza • azenario bi • hegaluzea, behar adina • ospina



itsaso arana / jolastoki-koa

Terroir ala sorterri (terruño)

Berba hauek sarritan erabiltzen da ardoaren munduan. Ze jatorri duten eta zer adierazi nahi duten argitzen saiatuko gara. *Terroir* hitz frantsesa da. Lurra eta lur horri dagokion mikroklima batzen ditu kontzeptu honek. Edo beste modu batera esanda: helburu praktiko batekin, beste batengandik bereiztu daitekeen unitate eko-geo-edafologikorik txikiena adierazi nahi du. Berba hau *sorterri* (erdaraz *terruño* esaten dena) bezala itzuli liteke; baina, hala ere, ez ditu frantsesez dituen adiera guztiak batzen.

Mikroklimaren alde hau batez ere frantsesek explotatu dute, izan ere, han alboko chateaux-ak mikroklima desberdinak dituzte eta horregatik ardoek ere ezaugarri desberdinak izaten dituzte. Horrela, nahiz eta eskualdeko berekoak izan, batzuek beste batzuek baino ospe handiagoa izaten dute, eta botilak garestiago saldu ahal izaten dira.

Ardoa kultura den lekuetan ardoa eta lurraren batuketak ardo bat beste batzuetatik bereizten du, nahiz eta eskualde beretik eta mahats mota berbera erabilia izan ardo horiek egiteko. Mediterraneo inguruko herrialdeetako marketan gertatzen da hori: Burdeos, Borgoa, Oporto, Errioxa, Mosela... Sorterriko ardo hauek Burdeos *crus* deitzen dira; Borgoa *clos*; Espainian, *vinos de pago* o *de finca*... ^m



Itsaso Arana > ardoetan aditua

Estatuko sommellierrik onena izendatu berri dute

Urrezko sudurra



Itsaso Arana jaso duen sariarekin

Ezaguna egingo zaizue Itsaso Arana. Izan ere, aspalditik eskaintzen dizkigu, UK aldizkariko orriotan bertan, ardoaren gaineko lezioak. Orain gutxi, Espainiako sommellierrik onenaren saria eta 2003ko Urrezko Sudurra izendapena jaso ditu: usaimen hutsa erabilia asmatu zituen kopa ilun batean eskaini zioten ardoa egiteko zer mahatsez egina zen eta zein zuen jatorria.

Lehiaketa honetara Estatuko 500dik gora sommellier aurkezten dira. Finalerako berriz, hamaika baino ez dira sailkatzen. Aurten hamaika horien artean lau euskaldun egon dira.

—Maila handia omen dute Euskal Herriko sommellierrek...
—Gauza jakina da! Hemen beti ondo jatea eta edatea gustatu izan zaigu.
—Itsaso, irakurleak jakin dezan, zer da

zehazki sommellier bat?

—Labur eta argi azalduko dizut. Sommellier, jatekx batean edari guztiak erosi, zaindu eta bezeroei argibideak ematen dizkion behargina da. Hori da nire lanbidea Jolastoki jatekxean.

—Esaidazu, faborez, uda honetan zein ardo edan behar den.

—Uf! Ez dago marka bat esaterik. Uda bidaiatzeko garaia izaten da, eta beraz, ardo berriak ezagutzeko abagunerik egokiena. Nik beti tokian tokiko ardoak eta likoreak eskatzen ditut. Esaterako, Andaluzian Barbadilloa eskatzen dut, Galizian orujoa, Mallorkan gineta...

—Esaidazu zeozer txakolinaren —hau da, geurea dugun ardoaren— alde.

—Gehiago hedatu eta gehiago edan behar dugun ardoa da, baina ez dut txokokeriagatik esaten. Bai Getariakoa eta bai Bizkaiko txakolina kalitate handikoak dira biak. Gurean oso ezezaguna da, eta gainera, oraindik ere jendeak antzinako ardo garratz eta merkearen akordua du gogoan. Esan bezala, gaur egungo txakolina puntako ardoa da.

—Zure lanagatik asko edango duzu. Esaiguzu zein den osterako erremediorik onena.

«Ardoa ona bada ez du osterik eragiten»

—Gauza bat esango dizut, ardoa ona bada ez dizu osterik eragingo. Edaten denean, kantitatea baino kalitatea begiratu behar da. Hala ere, asko edan baduzu, goiza bezperan hartutako edari berragaz hastea izaten da onena (barreak). Oheratu baino lehen ur asko edatea ere oso ona da, ostea deshidratazioagatik sortzen delako. ^m

jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

Taberna Bern

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

ardoak

Eskaintza
6 botila
3 bot. ardo beltz
3 bot. ardo gorri
18 €
+ 4,65 €
BIDALKETA GASTUAK

Bodega
S. Miguel S.C. Eslava
Nafarroa
Tel. 948 73385

Nafarroako Jatorrizko Deitura

Sirgún

Negarretik egindako Gorría
Elaborazioa: mahatsik onenen lehenengo negarra tenperatura baxuetan hartzitzen da frutaren aroma guztia gorde dezan. **Dastaketa-obarrak:** ginga kolore argia, aratza eta distiratsua. Aroma intentsu eta garbick lore eta fruta freskoa gogorarazten dute. Sudurrean gozoa eta dotorea da. Ahoan freskotasun baltamikia du, konplexutasuna eta pisua ematen dizkiona. **Uztartzea:** aperitibo gisa aparta, baita saltsan egindako arrainekin eta okela zuri edo lumadunekin ere.

Garnacha zaharreko Beltza
Elaborazioa: 50 uretik gora duten guneko ohiko mahastietako aukeraketa zaindua. Haritz amerikarrek upelatan batuz beste lau hilabetez ondua. **Dastaketa-obarrak:** kolore aberas eta estaliko ardo beltza, ontzearen ondorioz lortutako geruza meheko eboluzioarekin. Sudurrean inieresgarria eta konplexua, zuraren baina eta espezie-ukituak, barietatearen fruta-usainarekin ezin hobeto konbinatzen dituen. Ahoan delikatu, pisu nabarmenak eta tanino orekatuekin, eta amaieran, herriro ere agertzen dira fruten eta mineralen aromak. **Uztartzea:** ezin hobeto doa menurik oneneko jakiekin nahiz sukaldaritza bikaineneko sormen-lanekin.

DEI IEZAGUZI ETA EGUN GUTXI BARRU
ZURE ETXEAN

EDO OPARITAN ZUK
NAHI DUZUNARI
BIDALIKO DIOGU

902 45 12 12
IRUÑA • EUSKAL HERRIA



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA

Bidaia
Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO


OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA
T. : 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]



URA

t

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
San Joan egunak aje handia utziko ditu. *On* botoia sakatu eta ikusiko duzu nola jarriko zaren martxan uda osorako. Onddotara zoazela? Sasoiaren beldu behar dira, morel, eta oraindik ez da heldu. Urtzi ondoak eta prestatu bainu-jantzia.



OTSOA

t

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Azkarra baino azkarragoa zarela uste duzu, baina albokoek adarra jotzen dizute etengabe. Itzartu behingoz. Aste barruan hartzen dituzun jai-egunek zapora ona izaten dute, ezta? Baina etorriko zaizu buelta eta orduan besteek gozatuko dute.



ADARRA

t

(Otsailak 19 martxoak 20)
Pisukidearen zapatilak jantzi eta ogia eroatera jaitsi zinen ohartu gabe. Xelebrea zara gero! Asko hitz egiten duzu, baina lan gutxi egin ere. Azken egunetan alfer-alfer zabiltza gainera. Zuk ikusiko duzu zer egiten duzun oporren ondoren.



AITZURRA

t

(Martxoak 21 apirilak 19)
Galdutuen diru zorroa etxera eraman zizun mutikoari euro bakar bat ez ematea ere! Zekena izan behar da gero! Ligatzeko kontuak dituzu etengabe ahoan, baina duzun aurpegi horrekin ez duzu askorik ligatzen. Has zaitetz, gimnasia joaten.



HOSTOA

t

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Guztia atsegin duzu eta kalitatekoa izan behar du, baina albokoak ordaintzen duenean, noski, eta hori ezin daiteke beti lortu. Adarra jotzea atsegin duzu, baina, zuri jotzen dizutenean, ez duzu gustura hartzen.



EGUZKIA

t

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Elefantearena baino bihotz handiagoa duzula diozu zuk, baina guztiz oker zaudete. Gai zailenetan buru argiaz jokatu duzu. Egun egokienak dituzu bai lanean bai zeure portaeran aldaketak ezartzeko. Lagunek opariak eta arazoetarako konponbideak emango dizkizute.



GARIA

t

(Ekainak 19 uztailak 18)
Hartza baino zakarragoa zara eta sentibilitatea zer den ez dakizu. Kostako zaizu, baina saia zaitetz maite dituzun pertsonen samurrago izaten. Seguraski bilera batera joango zara eta aspaldian ikusi ez dituzun pertsonak bertan egongo dira.



LASTOA

t

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Onuragarri izango diren ustekabeko aldaketak datozkizu lan arloan baina horiek aurrerago zehaztuko dira. Garrantzi bereziko helburu berriak izango dituzu lan arloan, eta aurrerapauso izango dituzu, gainera. Ereiteko garaia da etorkizuneari onurak biltzeko.



IRATZEA

t

(Abuztuak 18 irailak 16)
Famili harremanek egonkortzeko joera izango dute, zu aztoratuta egon arren. Zure inguruan dauden pertsonen beharrei arreta gehiago eskaintzen saia zaitetz. Jarrera apalagoa izango bazenu, zama astunak saihestuko zenituzke etorkizuneari.



META

t

(Irailak 17 urriak 16)
Datozen egunotan zeure burua garaitzat hartuko duzu eta baliteke atzean utziko dituzun arazoez ez jabetzea. Telebista aurrean igarotzen duzun denbora hori askoz hobeto erabiliko zenuke kultur ekitaldi batean parte hartuta edo lagunekin elkartuta.



HAZIA

t

(Urriak 17 azaroak 15)
Oso gutxi pentsatzen duzu eta pentsaraziko dizuten pertsonen inguratzea edo liburu sakon bat irakurtzea ez litzazuke gaizki etorriko. Buruko mina sentitzen baduzu, ez larritu, hori hasieran bakarrik gertatuko da, ohituta ez zaudelako.



NEGUA

t

(Azaroak 16 abenduak 20)
Aste honetan auto batek harrapatuko zaitu, beraz aseguru on bat egin ezazu. Zorionez ez dizu min handirik emango eta baja-aldi ederra gozatuko duzu. Eta autoez ari garenez, baduzu garaia gida-baimena lortzeko. Emaizu izena autoeskolaren batean.



mungia

oKINDegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

[komikia]



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

12345678910

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

Ezker eskuin

1. Balakatuak, ferekatuak. 2. Larruzko oinetako. Arrazoi. 3. Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki. 4. Bizkaiko herria. Garai. 5. Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako hiria. 6. Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa. 7. Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu. 8. Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota. 9. Trebea. Sortu zintuena. 10. Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

1. Langile klasea. 2. Martxan ja-riak. 3. Zirt edo..., erabaki! Ikus-menaren organoa. 4. Asia Txi-kiko antzinateko hiria. Asiako estatua. 5. Nor pluralean. Ame-rikako estatua. Kanpo. 6. Zu-bereraz, ibarra, harana. Emaku-me izena. Uranioa. 7. Bostehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko. 8. Uztarriz lotu. Mila. 9. Ipa-raldean, keinu. Eskoziako fami-lia-multzo. 10. Amerikako esta-tua. Iodoa.

Soluzioak

I	N	N	U	T	S	V	K	V	A
V	M	V	V	O	I	V	I	A	I
V	T	T	V	V	G	I	R	I	R
I	K	U	N	V	L	E	Z	E	E
B	T	R	V	B	B	V	L	A	L
N	U	R	I	U	V	R	I	R	I
O	R	V	V	K	I	T	V	G	I
L	E	T	V	B	O	R	I	N	I
O	I	Z	V	K	A	R	K	B	V
K	U	D	N	V	T	Z	L	A	Z



EUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

Zozketa mundiala*
harpidedunen artean
8 eguneko kruzeroa 2 lagunentzat
Mediterraneoan (otorduak barne)

* Zozketa 2003/03/31n egingo da

BIDALI ZURE DATUAK ETA IZAN ZAITEZ LUMA-KO HARPIDEDUN



BAGABIGA, E.M.E.
Istillaga plaza 2 behe. 307 PK-20304 IRUN
Tfnoa: (+34) 943 62 95 64 - (+34) 943 63 08 83
luma@xedera.com / www.xedera.com

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Aktore honen “bixotzeko” hiria Bilbo da
- *Pecata minuta* eta *Hau paraderoa* antzezlanetan parte hartu izan du
- 2000an Bilboko Aste Nagusiaren pregoia irakurri zuen

> Aurrekoaren erantzuna: Andoni Aizpuru

> Irabazlea: ***Larraitx Bueno (Algorta)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean ondoan ikus ditzakezuen sariak zozketatuko ditugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

•Argia astekariaren biru
hilabeteko harpidetza doan



•Freexkue
liburua

www.argia.com

Bittor Egurrola

Leioaztarrak Begoñara erromes, 1957

Argazkian agertzen ez bada ere, Begoñako Basilikaren aurrealdean gaude. Begoñako Andra Mariaren eguna, abuztuaren 15a, dela eta, ohitura zen bezperako gauean oinez igotea, eta hala egin zuten Leioako 14-15 urteko gazte hauek, Elexalde ingurukoak gehienak, Romantxu Atxalandabasok antolatutako erromesaldian. Abuztuaren 14an, beraz, irten eta 15eko goizaldean Begoñara heldu eta goizeko lehenengo meza, zazpietakoa, entzun. Eta meza ostean, basilikaren ondoko abadetxean txokolate eta txurroak gosaldtu, baina ez abadetxeak oparituta, norberak ordainduta baizik.

Egun horretan argazkilariak egoten ziren prest, argazkilari profesionalak, bertara joandako erromesei argazkiak ateratzeko, eta horietariko batek atera zuen argazki hau. Mutilen atzean ikusten dena “bionbo” antzekoa da, argazkilariak bere gustura apainduta. Xabier Olabarrieta ere bertan agertzen da, etxeakoentzat erositako erroskillak eskuan dituela. Meza, txokolatea eta txurroak, argazkia, erroskillak... egin beharreko den-dena egin eta gero trenetxera. m

Zutunik: Fran Atxalandabaso, Julen Aresti, Jose Antonio Ugarte, A. Korrea, Manolin Murueta “Errekalde”, Romantxu Atxalandabaso (GB), Jabi Llona, Xabier Olabarrieta / **Makurturik:** Antonio Cabrera, Alex Mezo (GB), Jose Mari Beitia, Imanol Bilbao

* Oharra: aldizkarian argitaratzeko argazki zaharrik bazenu, jarri zaitez mesedez UKrekin harremanean: 94 491 13 37

IXIAR OREJA > panderojole eta aurkezle ohia

“Ez dut ametsik egiten gehiago, ez dut behar”



Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...
Ufa! Oso konplexua da hori. Erantzun bat? Kuriosidade sana.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?
Gauzek gehiegi eragiten naute, asko barneratzen dut dena.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...
Hainbeste ditut! Eta denak oso onak. Atzera begira neure burua irribarretsu ikusten dut beti, eta oso jende onaz inguratuta.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?
Ikasle garaian, Iruñean ikasten ari nintzenean, gelako batek mozkortzeko moduko ahotsa neukala esan zidan eta izugarri gustatu zitzaidan.

Zein komentariok egiten dizu kalte gehien?
Bai nireganako eta bai besteenganako errespetu faltadunak, zentzurik gabeko errespetu falta dutenak.

Zein da zure abestirik gustukoena?
Hori aurreneko galdera baino zailagoa da. Ez dakit, rocka gustatzen zait oro har.

Eta libururik gogokoena?
Orain irakurtzen ari naizena: *Lagun izoztua*.

Film bat? Bat esatearren, *Memorias de Africa*.

Zein lelorekin egiten duzu bat?
Bat egin ez, baina gorroto dudan bat esango dizut: *Etxaldeko matxinada* pelikula txikitan ikusi nuen, marrazki bizidunetan, eta bertan txerrien buruzagiak zera esaten zuen: “Animalia guztiak berdinak dira, baina batzuk berdina goak dira beste batzuk baino”... Gorroto dut lelo hori.

Zerk ematen dizu beldurra?
Gizakakiak, oro har. Guztiok daukagu alde on bat eta alde txar bat, eta ez dut konfiantzarik alde onak beti txarrari irabaz diezaiokeenik.

Errepikatzen zaizun ametsa...
Ez dut gehiago ametsik egiten. Eguneroko bizitza ahal den hobekien bideratu, eta ohera joanda, errepaso egitean, irribarre batekin oheratzen banaiz, pozik nago, eta ez dut ametsik behar. m

IXIAR OREJA– Andoaindarra da, 29 urte dauzka, arkitekto teknikoa da eta aparejadore egiten du lan. Aurreko aurkezpena edozein euskal gazterena izan zitekeen, baina hain ondo ezagutzen dugun Ixiar Orejarena da. “Kasualitate hutsez” musika eta, berak dioten bezala, “farandularen” mundura ailegatuta, urtebete da oraingo lanbidean baino ez diharduela Maixa Lizarribarregaz batera plazak dantzari ipini zituen abeslari eta panderojoleak. Ondoren, sei urtez ibili zen telebistako aurkezle, *Euskaraoke* eta *Altzaporr* saioetan. “Batek daki etorkizunak zer dakarren. Oraingoz gustura nago eta gero gerokoak”, dio, etorkizunean oholza gainera itzuliko ote den itaunduta.

GETXO BERTSO SAIO MUNDIALA ANDONI EGAÑA MAIALEN LUJANBIO AITOR MENDILUZE UNAI ITURRIAGA IGOR ELORTEA FREDI PAIA

GAIJARTZAILEA: AITZOL DE KASTRO

22:00 ETAN

UETAILA



**ALGORTAKO
BIOTE ALAI
PLAZAKO KARPAPEAN
SARRERA DOHAINIK**

